



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2020.06.25

Tolosako Udaletxean, 2020ko ekainaren hogeita bostean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Jose Francisco Amantegi Zubiria
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Egoitz Sorozabal Iturain
Xabier Balerdi Tolosa
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Aitana Amondarain Esquisabel
Aitzol Garcia Azurmendi
Olatz Artola Apezteguia
Ander Figuerido Zubiria bere izenean
eta Kristina Pelaez Errazkin a.ren
izenean.
Garbiñe Marzol Ormazabal
Xabier Martinez Quinquilla
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Ondorengo aktak onartzea:
2020ko ekainaren 8ko Aparteko Osoko Bilkurakoa.
2. Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanen zerbitzu-kontratua luzatzea eta prezioaren berrikuspenari buruzko eskuordetza onartzea.



TOLOSAKO
UDALA

3. 2020ko zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantza orokorraren aldaketa.
4. 2020ko zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen ordenantza fiskalaren aldaketa.
5. 2020ko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskalaren aldaketa. Emendakina 2.2.3 eranskina: Azokak.
6. 2020ko Aurrekontuko kredituen ez erabilgarritasunaren aitortpena onartzea.
7. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturen ordainketa.
8. 2019ko Aurrekontuaren likidazioa. Egonkortasunari buruzko txostenaren berri ematea Udalbatzarrari.
9. Udal sozietateetan eta gainerako erakundeetan kargu-uzteen eta izendapenen berri ematea.
- 10.- Dekretu hauen berri ematea:
 - 2020/735, Alkatetza Dekretua, Udaleko lanaren antolakuntzari buruzko instrukzioa onartzen duena.
 - 2020/766 Alkatetza Dekretua.
 - 2020/769 Alkatetza Dekretua.
 - 2020/822 Alkatetza Dekretua.
- 11 Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2020ko maiatzaren 4tik 29ra (2020/624-2020/748).
- 12.Mozioa: Ekainaren 28a. Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queeren eskubideen Nazioarteko Eguna.
13. Galderak eta eskaerak.

Idazkariak adierazi du 2/2016 legeak Euskadiko Toki Erakunde buruzkoak bere 25.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kristina Pelaez Errazkin zinegotziak bere botoa eskuordetzan eman diola Ander Figuerido Zubiria zinegotziari, azken honek balia dezan. Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari ekin diote.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman ondoren Udal Idazkariak EH-BILDU udal taldeak aurkeztu dituen ondorengo bi idatzi hauen berri eman die Udalbatzarkideei.



Erregistro Zkia: 2020-04580., 2020ko uztailaren 19koa.

Tolosako EH-BILDU udal taldeko bozeramaile ordearen aldaketa, Ander Figuerido Zubiria zinegotzia izendatuz.

Erregistro Zkia: 2020-04580., 2020ko uztailaren 19koa.

EHBILDUKo zinegotzia den Kristina Pelaez Errazkinek, amatasun atsedenaldi egoeran aurkitzen denez, honen iraun bitartean, bere boto eskubidea eskuordetzen dio Ander Figuerido Zubiriari, Tolosako udalbatzako organoen bilkuretan.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira

Ondoren, batzarkideek bilkurako gai zerrendari ekin diote.

1. ONDORENGO AKTAK ONARTZEA:
2020KO EKAINAREN 8KO APARTEKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. TOLOSAKO PARKE, LORATEGI, BERDEGUNE ETA KALEKO ZUHAITZEN
MANTENTZE-LANEN ZERBITZU-KONTRATUA LUZATZEA ETA PREZIOAREN
BERRIKUSPENARI BURUZKO ESKUORDETZA ONARTZEA.

Patxi Amantegi Zubiria Obra eta Zerbitzuetako azpisaileko zinegotziak azalpenak eman ditu.

I.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Xedea	Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanen zerbitzu-kontratua.
Unitate sustatzailea	Obrak eta Zerbitzuak Azpisaila
Espedientea:	B.10.13/2016/0003

II.- AURREKARIAK

Lehen.- 2016ko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Udalbatzak onartu zuen Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak egiteko zerbitzua (enpleguko zentro berezientzat erreserbatua) kontratatzeko adjudikazio



TOLOSAKO
UDALA

prozedura arautzen zuten Administrazio Baldintza Partikularren Pleguak eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua onartu zituen eta lizitazioari hasiera eman zion.

Bigarrena.- 2016ko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Udalbatzak onartu zuen 2016ko martxoaren 2ko akordioaren bitartez onartutako kontratazio prozedura desertutzat jotzea eta 2016ko martxoaren 22an hartutako erabakia berrestea, hau da, onartzea Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak kontratatzeko espedientea, eta hamabost egun naturaleko epea irekitzea, aipatutako lizitazioan enpresek proposamenak aurkez zezaten.

Hirugarrena.- Aipatutako lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratazailearen Profilean argitaratu zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean aurreikusitakoa betez.

Hauek ziren oinarrizko datuak:

- Xedea: Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak kontratatzea.
- Epea: 4 urtekoa, urtez urte beste 2 urteko luzapena aurreikusten zelarik
- Prezioa: 498.000,00 euro urtean (BEZa barne)

Laugarrena.- Lizitaziora GUREAK BERDEA, S.L.U. (B-20502613) enpresa bakarrik aurkeztu zen.

Bosgarrena.- Behin kontratazio-jardunbide osoa egin ondoren, 2016ko ekainaren 27an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak egiteko zerbitzu-kontratua GUREAK BERDEA, S.L.U. (B-20502613) enpresari esleitu zion, hurrengo era honetan:

- Prezioa: 487.449,20 euro urtean (402.850,58 euro printzipala eta 84.598,62 euro BEZa).
- Epea: lau urte kontratua sinatzen zenetik, beste bi urtez, urtez urte, luzatzeko aukerarekin.

Seigarrena.- Horiek horrela, 2016ko ekainaren 29an zegokion kontratua sinatu zen eta hori argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratazailearen Profilean. Hura 2016ko uztailaren 1ean hasi zen.

Zazpigarrena.- Aurreko guztia aintzat harturik, kontratua 2020ko ekainaren 30ean bukatzen da eta 2020ko otsailaren 12an Asier Galdós Arrondo jaunak, GUREAK BERDEA, S.L.U. (B-20502613) enpresaren izenean eta ordezkapenez, idatzi bat aurkeztu du kontratuaren prezioa KPIaren arabera berrikusteko eskatuz. Horren arabera, %1,2ko igoera eskatzen dute 2020ko urtarrilaren 1etik.



Zortzigarrena.- Aipatutako eskaera ikusita eta kontratua 2020ko ekainaren 30ean bukatzen denez, egokia dirudi izapide berean kontratuaren luzapena eta prezioaren berrikuspena egitea. Horretarako, Obrak eta Zerbitzuak Azpisaileko arduradunak GUREAK BERDEA, S.L.U. (B-20502613) enpresak egindako lana ontzat eman du eta kontratua luzatzearen aldeko proposamena egin du.

III.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1.- Kontratuaren luzapena: Bai Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 2. klausulak, baita bi aldeek sinaturiko kontratuaren 4. klausulan ere, kontratuaren hasierako iraupena lau urtekoa izango zela jasotzen zuen, 2016ko uztailaren 1etik hasita. Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea urtero luzatzeko aukera aurreikusten zen, guztira kontratuak, luzapenak barne gehienez sei urtekoa izango zelarik.

Halaber, administrazio kontratu mota guztietako luzapenak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 23. artikulua 2. atalak honako hau xedatzen du:

2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el periodo de duración de éstas y que la concurrencia para su adjudicación haya sido realizada teniendo en cuenta la duración máxima del contrato, incluidos los periodos de prórroga. La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, salvo que el contrato expresamente prevea lo contrario, sin que pueda producirse por el consentimiento tácito de las partes.

Kasu honetan, proposatzen den luzapenak ohiko izaera du.

2.- Prezioen berrikuspena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 89. artikuluan eta hurrengoetan, Administrazio Publikoetako kontratuen prezioak berrikusteko xehetasun hauek ematen ditu, 2016ko ekainean indarrean zegoen Legearen bertsioan:

1. Los precios de los contratos del sector público solo podrán ser objeto de revisión periódica y predeterminada en los términos establecidos en este Capítulo. No cabrá la revisión periódica no predeterminada o no periódica de los precios de los contratos. Se entenderá por precio cualquier retribución o contraprestación económica del contrato, bien sean abonadas por la Administración o por los usuarios. 2. Previa justificación en el expediente y de conformidad con lo previsto en el real decreto al que se refieren los artículos 4 y 5 de la Ley 2/2015, de desindexación de la economía española, la revisión periódica y predeterminada de precios solo se podrá llevar a cabo en los contratos de obra, en los contratos de suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas y en aquellos otros contratos en los que el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años. Dicho período se calculará conforme a lo dispuesto en el real decreto anteriormente citado. No se considerarán revisables en ningún caso los costes asociados a las amortizaciones, los



costes financieros, los gastos generales o de estructura ni el beneficio industrial. Los costes de mano de obra de los contratos distintos de los de obra, suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas, se revisarán cuando el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años y la intensidad en el uso del factor trabajo sea considerada significativa, de acuerdo con los supuestos y límites establecidos en el Real Decreto.

Aurrekoa aintzat harturik, kontratu honen iraupen osoa sei urtekoa izan daitekeenez eta kontratuaren zati banaezina den Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 3. eta 6. klausulek prezioen berrikuspenei buruz zehaztasunak ematen dituzte. 6. klausulak zehazki, hau esaten zuen: *“prezioa urtero berrikusiko da formula honekin: udal langileen egoera aplikatuko da, beti ere urtekoa bada eta Hego Euskal Herriko 4 lurraldeetako batz besteko KPIa baino gehiago ez bada”*. Beraz, kontratuaren luzapena onartzeko momentuan, prezioen berrikuspena tokatuko litzateke, pleguetan aipatutako formula aplikatuz nahiz eta ekonomiaren desindexazio legeak ez onartu. Hori horrela izanda, eta kontratuaren data ikusita, 2020ko uztailean tokatuko litzateke kontratuaren prezioa berrikustea, eta ez enpresak eskatu duen bezala urtarrilean.

Bestalde, 2020ko uztailean egin beharreko prezioaren berrikuspenearen datuak ezagutzeko (KPIaren aldaketa 2019ko ekainetik, 2020ko ekainera) uztailean arte itxaron behar da, INEren datu ofizialak behar baitira hori kalkulatu ahal izateko. Horrenbestez, kontratuaren luzapena planteatzen den momentu honetan ezin ditugu prezioen berrikuspenean aplikatuko diren datuak ezagutu.

Organo eskuduna.- Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena, kontratazio organoari dagokio. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren I. atalean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan hau xedatzen zen:

Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

Horiek horrela, eta kontratuaren iraupen osoaren prezioa ikusita (487.449,20 euro urtean BEZa barne), udaleko errekurtsio arrunten % 10aren atalasea gainditzen zen; horrenbestez, Tolosako Udaleko Osoko Bilkura izan zen kontratazio-organoa eta kontratuaren iraupen osoan bestelako erabakiak hartzeko eskumena ez zen Tokiko Gobernu Batzarrean ordezkatu, nahiz eta esleipena 2016. urtean Tokiko Gobernu



TOLOSAKO
UDALA

Batzarrak egin. Beraz, aurrekoa aintzat hartuta, **Tolosako Udaleko Osoko Bilkura da kontratuaren luzapena eta prezioaren berrikuspena onartzeko eskumena duen organoa.**

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2020ko ekainaren 17an egindako bilkuran, irizpenaren proposamena aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honakoa izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Nerea Letamendia, Ander Figuerido, Garbiñe Marzol eta Jose Mari Villanueva.

Aurreko guztia aintzat harturik eta Osoko Bilkurak dagokion ebazpena egin aurretik beharrezkoa den irizpena izan dezan, Udaleko Antolakuntza Batzordek honako irizpena onartu du:

IRIZPENA

Lehena.- Aurreko guztia kontuan hartuta, bidezkoa da Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak egiteko zerbitzu-kontratuaren **luzapena onartzea**, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako klausulekin bat eta udal kontuhartzaileak, aurretik, aldeko txostena igortzen badu. Era berean, kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak. Kontratuaren luzapena gehienez, 2020ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30a bitartean egingo da.

Bigarrena.- Kontratuaren prezioaren berrikuspenak, horien kalkulua, hurrengo luzapenak, kitapena eta egon daitezkeen bestelako gorabeherak ebazteko eskumena, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea.

Hirugarrena.- Zehazki, eta eskatutakoarekin bat etorritik, 2020ko uztailan egin beharreko prezioaren berrikuspenaren kalkularen onarpena Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea.

Laugarrena.- Aipatutako zerbitzua 0700.227.07.171.00 eta 0700.226.99.162.30 udal aurrekontuko partiden kargura finantzatuko da, horretarako eta aipatu bezala dagokion kredituaz hornitu beharko da.

Bosgarrena.- GUREAK BERDEA, S.L.U. (B-20502613) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritzea gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatzerara bertaratu dadin.

Seigarrena.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko Kontratatzaillearen Profileen argitaratzea.



TOLOSAKO
UDALA

Zazpigarrena.- Erabaki honen berri Ogasun eta Administrazio Finantza Sailari ematea legezko txostena igor dezan, Antolakuntza Batzordeak legezkoa den irizpena egin aurretik.

Zortzigarrena.- Luzapen honen oinarritzko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak egiteko zerbitzu-kontratuaren luzapena eta prezioaren berrikuspenari buruzko eskuordetza.

3. 2020KO ZERGAZK ETAK UDAL ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTELAKO SARRERAK KUDEATZEKO ETAK BILTZEKO ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA.

Begoña Tolosa Mendia; Ogasuneko zinegotzi delegatuak proposamenaren berri eman du azalduz ordenantza aldaketaren arrazoiak azalduz:

... *“Larrialdi egoera honek sortu duen krisi sanitarioa sozial eta ekonomikoari aurre egiteko argi geneuzkan gure lehentasunak Gobernu talde bezala: herritarren segurtasuna eta osasuna bermatzea, gizarte babesa bermatzea eta zaurgarritasun egoeran dauden sektoreei laguntzea eta babestea. Kasu honetan, gure arlota, fiskalki, neurriak hartu dira egoera arintzeko eta, orain, beste pare bat proposamen dakartzkigu, batzordean aipatutakoan. Proposamenak irizpenean jasota daude.”*



TOLOSAKO
UDALA

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO EKAINAREN 17KO IRIZPENA

Covid-19ak sortu duen osasun krisia bezalako aparteko egoeretan, beharrezko ikusten da, gaur egun, alkateak aparteko egoeretan atzeratzeen eta zatikatzeen ordainketa epeak luzatzeko aukera aurreikustea, zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko Ordenantza Orokorraren I. eta II. eranskinean jaso bezala.

Horregatik, proposatzen da testu hau sartzea Ordenantza Orokorraren II. Eranskinean:

2.2.- Aparteko gorabeherarik izanez gero, Alkateak luza ditzake emandako atzeratzeak edo zatikatzeak ordaintzeko epeak.

2.2.- Por circunstancias extraordinarias, la Alcaldía podrá ampliar los plazos de pago de los aplazamientos o fraccionamientos concedidos.

Bestalde, Covid-19ak sortu duen ezegonkortasun ekonomikoko egoerak atzeratzeak eta zatikatzeak errazteko beharra ere sortzen du.

Hori dela eta, eta soilik 2020rako, atzeratzeko edo zatikatzeak gutxieneko kopurua 150,00 eurotik 100,00 eurora jaisteak proposatzen da.

Idazkaritzak proposatu du aldatzea aparteko egoeretan atzeratzeen eta zatikatzeen ordainketa epeak luzatzeko aukerari dagokion testua, eta honela uztea:

2.2.- Hondamendi, alarma edo alerta-egoera, gertakari publiko larri edo arrisku larrien kasuan, Alkateak luza ditzake emandako atzeratzeak edo zatikatzeak ordaintzeko epeak.

2.2.- En caso de catástrofe, estado de alarma o alerta, hechos públicos graves o riesgos graves, la Alcaldía podrá ampliar los plazos de pago de los aplazamientos o fraccionamientos concedidos.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Ander Figuerido Zubiria

Horiek horrela, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko Ordenantza Orokorraren II Eranskinaren aldaketari.

II. Eranskina honela geldituko litzateke:



II. ERANSKINA

ANEXO II

2.1. Atzeratzeko edo zatikatzeko, gehieneko epea eta aurkeztu beharreko bermeak eta diru aurrerakinak honakoak dira:

2.1.- *En caso de aplazamiento o fraccionamiento, el plazo máximo a conceder así como las garantías y anticipos a aportar son los siguientes:*

2020. urtea / Año 2020

KOPURUA IMPORTE	BERMEA GARANTÍA	GEHIENeko EPEA PLAZO MÁXIMO	AURRERAPENA ANTICIPO
< 100,00 €	Ez/No	Ez/No	Ez/No
100,01 – 400,00 €	Ez/No	3 hilabete/3 meses	Ez/No
400,01- 2.000,00 €	Ez/No	6 hilabete/6 meses	Ez/No
2.000,01 – 6.000,00 €	Ez/No	Urtebete/1 año	Ez/No
6.000,01 – 12.000,00 €	Bai/Si(*)	Urtebete/1 año	Ez/No
12.000,01 -30.000,00 €	Bai/Si(*)	2 urte/ 2 años	Zenbatekoaren % 20/ 20 % del importe
>30.000,01 €	Bai/Si(*)	Alkatearen edo zinegotzi delegatuaren erabakia/ Decisión de la alcaldesa o concejal/a delegado/a	Zenbatekoaren % 20/ 20 % del importe

2021/01/01etik aurrera/Desde el 01/01/2021

KOPURUA IMPORTE	BERMEA GARANTÍA	GEHIENeko EPEA PLAZO MÁXIMO	AURRERAPENA ANTICIPO
< 150,00 €	Ez/No	Ez/No	Ez/No
150,01 – 400,00 €	Ez/No	3 hilabete/3 meses	Ez/No
400,01- 2.000,00 €	Ez/No	6 hilabete/6 meses	Ez/No
2.000,01 – 6.000,00 €	Ez/No	Urtebete/1 año	Ez/No
6.000,01 – 12.000,00 €	Bai/Si(*)	Urtebete/1 año	Ez/No
12.000,01 -30.000,00 €	Bai/Si(*)	2 urte/ 2 años	Zenbatekoaren % 20/ 20 % del importe
>30.000,01 €	Bai/Si(*)	Alkatearen edo zinegotzi delegatuaren erabakia/Decisión de la alcaldesa o concejal/a delegado/a	Zenbatekoaren % 20/ 20 % del importe

<p>Pertsona fisikoek, 2.000 eurotik gorako zorretan, Ogasuneko Informazio Fiskala aurkeztu beharko dute.</p> <p>(*) Zorraren atzeratzeak edo zatikatzeko bermatzeko, exijitu da kreditu entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria bere alde eratzeko.</p> <p>Frogatzen denean abal edo ziurtagiri hori lortzea ezinezkoa dela edo horiek emateak jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna nabarmen konprometitzen duela, Zerga Administrazioak bestelako bermeak onartu ahal izango ditu, hala nola, hipoteka, bahia edo fidantza pertsonal eta solidarioa.</p>	<p>Las personas físicas, en deudas superiores a 2.000 euros, tendrán que presentar la Información Fiscal de Hacienda.</p> <p>(*) La garantía para el aplazamiento o fraccionamiento será constituida mediante aval solidario de entidad de crédito o sociedad de garantía recíproca o certificado de seguro de caución.</p> <p>Cuando se justifique que no es posible obtener dicho aval o certificado o que aportación compromete gravemente la viabilidad de la actividad económica, se podrán admitir otras garantías que consistan en hipoteca, prenda o fianza personal y solidaria</p>
---	--

2.2. *Hondamendi, alarma edo alerta-egoera, gertakari publiko larri edo arrisku larrien kasuan, Alkatetzak luza ditzake emandako atzeratzeak edo zatikatzeko ordaintzeko epeak.*

2.2. *En caso de catástrofe, estado de alarma o alerta, hechos públicos graves o riesgos graves, la Alcaldía podrá ampliar los plazos de pago de los aplazamientos o fraccionamientos concedidos.*



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Aldaketa horiek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe horretan, ordura arte behin behinekoa zen erabakia behin betiko bihurtuko da.

HIRUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo haren aldaketen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean sartuko argitaratu arte.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **erabaki du** hasierako onarpena ematea zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko Ordenantza Orokorren II Eranskinaren aldaketei.

4. 2020KO ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Begoña Tolosa Mendia; Ogasuneko zinegotzi delegatuak irizpenaren berri eman du.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO EKAINAREN 17KO IRIZPENA

2.1.2.1. Eranskina: Hirigintzako Baimenak

Akatsa antzeman da Hirigintzako Baimenak zehazten dituen eranskinean:

Lehen erabilerako baimenen kasuan, % 15eko portzentaia aplikatzen da eraikuntza, instalazio eta obren zergaren zenbatekoaren gainean. Honek ez zuen aldaketarik izan behar 2019tik 2020ra eta hau zuzentzea proposatzen da.



Gaur egun:

<p>B) LEHEN ERABILERAKO BAIMENAK</p> <p>B.1 Eraikin eta oro har instalazioen lehen erabilerarako baimenak ehunekotan, eraikuntza, instalazio eta obren zergan lortutako baimenaren zenbatekoaren gainean</p>	<p>LICENCIAS DE PRIMERA UTILIZACION</p> <p>B.1 Licencias de primera utilización de los edificios e instalaciones en general, en % sobre el importe de la licencia obtenida en el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras</p>	<p>15,00</p>	<p>15,10</p>
--	---	--------------	--------------

Proposamena:

2.1.2.1

ERANSKINA – ANEXO

HIRIGINTZAKO BAIMENAK	LICENCIAS URBANÍSTICAS	EUROAK 2019	EUROAK 2020
<p>A) OBRA BAIMENAK</p> <p>A.1 3.005,06 € bitarteko aurrekontua</p> <p>A.2 3.005,07 – 6.010,11 € bitarteko aurrekontua</p> <p>A.3 6.010,12 - 30.050,61 € bitarteko aurrekontua</p> <p>A.4 30.050,62-120.202,41 bitarteko aurrekontua</p> <p>A.5 120.202,42 –721.214,51 € bitarteko aurrekontua</p> <p>A.6 721.214,52- 3.005.060,51 € bitarteko aurrekontua</p> <p>A.7 3.005.060,52 € tik gorako aurrekontua</p>	<p>LICENCIAS DE OBRAS</p> <p>A.1 Hasta 3.005,06 € de presupuesto</p> <p>A.2 De 3.005,06 a 6.010,11 € de presupuesto</p> <p>A.3 De 6.010,12 a 30.050,61 € de presupuesto</p> <p>A.4 De 30.050,62 a 120.202,41 € de Presup.</p> <p>A.5 De 120.202,42 a 721.214,51 € de Presup.</p> <p>A.6 De 721.214,52 a 3.005.060,51 € de Presup.</p> <p>A.7 Más de 3.005.060,52 € de presupuesto</p>	<p>35,75</p> <p>71,30</p> <p>356,85</p> <p>700,20</p> <p>3.703,75</p> <p>7.407,60</p> <p>11.106,20</p>	<p>36,05</p> <p>71,85</p> <p>359,65</p> <p>705,65</p> <p>3.732,70</p> <p>7.465,45</p> <p>11.192,90</p>
<p>B) LEHEN ERABILERAKO BAIMENAK</p> <p>B.1 Eraikin eta oro har instalazioen lehen erabilerarako baimenak ehunekotan, eraikuntza, instalazio eta obren zergan lortutako baimenaren zenbatekoaren gainean</p>	<p>LICENCIAS DE PRIMERA UTILIZACION</p> <p>B.1 Licencias de primera utilización de los edificios e instalaciones en general, en % sobre el importe de la licencia obtenida en el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras</p>	<p>15,00</p>	<p>15,00</p>
<p>C) HIRIGINTZAKO ESPEDIENTE TRAMITAZIOA</p> <p>C.1. Hirigintza gestioko dokumentu bakoitzeko: Exekuzio unitateen mugaketa Urbanizazio proiektuak Birpartzelatze proiektuak</p> <p>C.2. Hirigintza partzelazioak</p> <p>C.3. Kontsultak eta hirigintza zedulak</p>	<p>TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES URBANÍSTICOS</p> <p>C.1. Por cada documento de gestión urbanística: Delimitación de unidades de ejecución Proyectos de actuación urbanizadora Proyectos de reparcelación</p> <p>C.2. Parcelaciones y segregaciones urbanísticas</p> <p>C.3. Consultas y cédulas urbanísticas</p>	<p>3.207,50</p> <p>356,85</p> <p>142,55</p>	<p>3.232,55</p> <p>359,65</p> <p>146,65</p>

2.1.3.2. Eranskina: Jarduera Sailkatuen Baimenak (3/98 Legeko 2.B Eranskina)

Pasa den iraileko ordenantzen aldaketetan, 2.1.3.2. Eranskina ez zen sartu, ondorioz bere tarifak eguneratu gabe geratu ziren.

Hau zuzentze aldera, iraileko aldaketetan aplikatu zen igoera aplikatzea eta 2020rako eguneratzea proposatzen da, baita taularen izena zuzentzea ere:

Gaur egun:



TOLOSAKO
UDALA

JARDUERA SAILKATUEN BAIMENAK (3/98 2.1.3.2. LEGEKO 2.B ERANSKINA)		COMUNICACIÓN PREVIA DE ACTIVIDADES (ANEXO 2.B. DE LA LEY 3/98)	EUROAK 2019	EUROAK 2020
A)				
A.1 Garajeak (Eransk. 5. puntua)		A.1 Garages (punto 5 del Anexo)	414,95	414,95
A.2 Dendak (3. puntua)		A.2 Comercios (punto 3)	414,95	414,95
A.3 Zerbitzuak (6, 7 eta 13 puntuak)		A.3 Servicios (puntos 6, 7 y 13 del Anexo)	594,8	594,8
A.4 Industriak eta 1,2,4 eta 14 puntuetan daudenak		A.4 Industrias y aquellos que estén en los puntos 1,2,4 y 14	791,35	791,35
A.5 Nekazaritza ustiapenak (9. puntua)		A.5 Explotaciones ganaderas (punto 9)	190,3	190,3
A.6 Instalaciones complementarias (punto 10,11 y 12)		A.6 Instalaciones complementarias (punto 10,11 y 12)	207,05	207,05
A.7. Ostalaritza (punto 8. punta)		A.7. Hostelería (punto 8)		
A.7.1 Jatetxeak:		A.7.1 Restaurantes:	1604,55	1604,55
A.7.2 Bestelako edaritegiak, kafe dastaketa eta antzekoak		A.7.2 Otros bares y degustaciones de café o similares	1.073,15	1.073,15
C)				
Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasuna aldaketan, tarifaren erdia likidatuko da.		En los cambios de titularidad de la actividad, sin modificación o ampliación de la actividad, se liquidará la mitad de la tarifa.		

Proposamena:

JARDUERA SAILKATUEN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAK (3/98 LEGEKO 2.B ERANSKINA)		COMUNICACIÓN PREVIA DE ACTIVIDADES CLASIFICADAS (ANEXO 2.B. DE LA LEY 3/98)	EUROAK 2019	EUROAK 2020
A)				
A.1 Garajeak (Eransk. 5. puntua)		A.1 Garages (punto 5 del Anexo)	414,95	418,40
A.2 Dendak (3. puntua)		A.2 Comercios (punto 3)	414,95	418,40
A.3 Zerbitzuak (6, 7 eta 13 puntuak)		A.3 Servicios (puntos 6, 7 y 13 del Anexo)	594,8	599,75
A.4 Industriak eta 1,2,4 eta 14 puntuetan daudenak		A.4 Industrias y aquellos que estén en los puntos 1,2,4 y 14	791,35	797,90
A.5 Nekazaritza ustiapenak (9. puntua)		A.5 Explotaciones ganaderas (punto 9)	190,3	191,90
A.6 Instalaciones complementarias (punto 10,11 y 12)		A.6 Instalaciones complementarias (punto 10,11 y 12)	207,05	208,75
A.7. Ostalaritza (punto 8. punta)		A.7. Hostelería (punto 8)		
A.7.1 Jatetxeak:		A.7.1 Restaurantes:	1604,55	1.617,85
A.7.2 Bestelako edaritegiak, kafe dastaketa eta antzekoak		A.7.2 Otros bares y degustaciones de café o similares	1.073,15	1.082,05
C)				
Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasuna aldaketan, tarifaren erdia likidatuko da.		En los cambios de titularidad de la actividad, sin modificación o ampliación de la actividad, se liquidará la mitad de la tarifa.		

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendi, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Ander Figuerido Zubiria.



Hau dela eta hau, batzordeak

DIKTAMINATU DU

LEHENA.- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen ordenantza fiskalaren ondorengo eranskinen aldaketei hasierako onarpena ematea.

Eranskinen tarifen taulak honela geratuko lirateke:

2.1.2.1. Eranskina: Hirigintzako Baimenak

	HIRIGINTZAKO BAIMENAK	LICENCIAS URBANÍSTICAS	EUROAK 2019	EUROAK 2020
A)	OBRA BAIMENAK A.1 3.005,06 € bitarteko aurrekontua A.2 3.005,07 – 6.010,11 € bitarteko aurrekontua A.3 6.010,12 - 30.050,61 € bitarteko aurrekontua A.4 30.050,62-120.202,41 bitarteko aurrekontua A.5 120.202,42 –721.214,51 € bitarteko aurrekontua A.6 721.214,52- 3.005.060,51 € bitarteko aurrekontua A.7 3.005.060,52 € tik gorako aurrekontua	LICENCIAS DE OBRAS A.1 Hasta 3.005,06 € de presupuesto A.2 De 3.005,06 a 6.010,11 € de presupuesto A.3 De 6.010,12 a 30.050,61 € de presupuesto A.4 De 30.050,62 a 120.202,41 € de Presup. A.5 De 120.202,42 a 721.214,51 € de Presup. A.6 De 721.214,52 a 3.005.060,51 € de Presup. A.7 Más de 3.005.060,52 € de presupuesto	35,75 71,30 356,85 700,20 3.703,75 7.407,60 11.106,20	36,05 71,85 359,65 705,65 3.732,70 7.465,45 11.192,90
B)	LEHEN ERABILERAKO BAIMENAK B.1 Eraikin eta oro har instalazioen lehen erabilerarako baimenak ehunekotan, eraikuntza, instalazio eta obren zergan lortutako baimenaren zenbatekoaren gainean	LICENCIAS DE PRIMERA UTILIZACION B.1 Licencias de primera utilización de los edificios e instalaciones en general, en % sobre el importe de la licencia obtenida en el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras	15,00	15,00
C)	HIRIGINTZAKO ESPEDIENTE TRAMITAZIOA C.1. Hirigintza gestioko dokumentu bakoitzeko: Exekuzio unitateen mugaketa Urbanizazio proiektuak Birpartzelatze proiektuak C.2. Hirigintza partzelazioak C.3. Kontsultak eta hirigintza zedulak	TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES URBANÍSTICOS C.1. Por cada documento de gestión urbanística: Delimitación de unidades de ejecución Proyectos de actuación urbanizadora Proyectos de reparcelación C.2. Parcelaciones y segregaciones urbanísticas C.3. Consultas y cédulas urbanísticas	3.207,50 356,85 142,55	3.232,55 359,65 146,65



2.1.3.2. Eranskina: Jarduera Sailkatuen Baimenak (3/98 Legeko 2.B Eranskina)

2.1.3.2.	JARDUERA SAILKATUEN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAK (3/98 LEGEKO 2.B ERANSKINA)	COMUNICACIÓN PREVIA DE ACTIVIDADES CLASIFICADAS (ANEXO 2.B. DE LA LEY 3/98)	EUROAK 2019	EUROAK 2020
A)	A.1 Garajeak (Eransk. 5. puntua) A.2 Dendak (3. puntua) A.3 Zerbitzuak (6, 7 eta 13 puntuak) A.4 Industriak eta 1,2,4 eta 14 puntuetan daudenak A.5 Nekazaritza ustiapenak (9. puntua)	A.1 Garages (punto 5 del Anexo) A.2 Comercios (punto 3) A.3 Servicios (puntos 6, 7 y 13 del Anexo) A.4 Industrias y aquellos que estén en los puntos 1,2,4 y 14 A.5 Explotaciones ganaderas (punto 9)	414,95 414,95 594,8 791,35 190,3	418,40 418,40 599,75 797,90 191,90
	A.6 Instalaciones complementarias (punto 10,11 y 12) A.7. Ostalaritza (punto 8. punta) A.7.1 Jatetxeak: A.7.2 Bestelako edaritegiak, kafe dastaketa eta antzekoak	A.6 Instalaciones complementarias (punto 10,11 y 12) A.7. Hostelería (punto 8) A.7.1 Restaurantes: A.7.2 Otros bares y degustaciones de café o similares	207,05 1604,55 1.073,15	208,75 1.617,85 1.082,05
C)	Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasuna aldaketan, tarifaren erdia likidatuko da.	En los cambios de titularidad de la actividad, sin modificación o ampliación de la actividad, se liquidará la mitad de la tarifa.		

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Epe barruan erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat ulertuko da.

HIRUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin-behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean sartuko argitaratu arte.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apeztegui, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **erabaki du** zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen ordenantza fiskalaren ondorengo eranskinen aldaketei hasierako onarpena ematea.

5. 2020KO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOZKIEN TASEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA. EMENDAKINA 2.2.3 ERANSKINA: AZOKAK.

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia; Ogasuneko zinegotzi delegatua: *“Lehen hirugarren puntuan zatiketarena onartu dugunean, aipatu izan ditugun arrazoi eta helburu berarekin, Covid-19 gehien kaltetu egin diren herritar kolektibo eta sektoreak babesteko eta laguntzeko hainbat tasa hobaritzea proposatzen dugu. Kasu honetan, posible da tasaren hobaria aplikatzea Foru Dekretua araua argitaratu egin zelako maiatzan, 3/2020, eta ahalbideratzen diguna hori egiteko. Aipatu behar da hobari hauek aplikatuko direla 2020. urtean soilik eta urtarrilaren 1eko atzerakina izango dutela, baita ere dekretu foralak baimentzen zuelako. Kasu honetan, ekartzen dituguna da, hobarien kasuetan bi proposamen. Terrazen kasuetan alarma egoera establezimenduen itxiera ekarri du eta ikusi dugu deseskalada gogorra izaten ari dela sektorearentzat eta ezarritako baldintzak betetzeko nahiko zorrotzak dira. Orduan, hemen proposatzen genuen terrazen kasuetan %50eko hobaria aplikatuko zaiela 2020rako ezarritako tarifei soilik, Covid garaiaren aurretik baimendutako okupazioetarako. Eta bestalde, % 100eko hobaria ezartzen da 2020rako soilik, Covid-aren deseskalatze fasean, Udalak aldi baterako baimendutako m² gehikuntzentzat, ahal den neurrian, aurrez baimendutako edukiera/okupazioa eskakizun berrietara egokitzen laguntzeko. Baita ere, 2020ko eskaera berriei okupazioa kalkulatzeko, Covid aurreko irizpideak aplikatuko zaizkie, eta aurrez aipatutako hobariak aplikagarri izango dituzte. Baita ere lehen aipatu izan dena, aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute. Hau terrazaren kasuetan. Baina alarma egoera eragina izan du Azokan. Aste batzuetan eten egin zen azoka herritarren segurtasuna bermatze lehenetsi egin zelako, Etenda egon den denboran Ekoizleen elkarlanean aritu dira Merkataritza departamentuetik. Beste aukera berriak landu izan dira ekimen berriak martxan jarri produktuak merkaturatzeko. Esan beharra dago, gainera, iritsi ziren lan lerro horiek arrakasta handia izan dute eta denboran jarraitzeko asmoarekin eta hainbat lerro landu izan dira baita ere Azokak ireki arte, baina egoerak beste sektoreei bezala eragina izandu. Horregatik batzordean hasiera batean proposatu geneuena izan zen azokaren kasuetan hiru hilabeteko kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboei % 100eko hobaria aplikatuko zaie 2020ko 2. hiruhilabeteko zerga-kuotan. Urteko kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboei % 25eko hobaria aplikatuko zitzaie 2020ko zerga-kuotan. Hobari hauek aplikatuko dira soilik 2020. urtean eta hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute. Batzordean bertan EHBILDUren aldetik proposamena bat luzatu zuten, aztertzekeotan geratu ginen eta hurrengo egunean hiru alderdiok, PSE-EE, EAJ/PNV eta EHBILDUK gure adostasuna agertu genuen eta emendakina adostua aurkeztu genuen non proposatzen Hiru-hilabetekako kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboei % 100eko*



hobaria aplikatuko zaie 2020ko 2. hiruhilabeteko eta 3. hiruhilabeteko zerga-kuotan eta baita urteko kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboiei % 50eko hobaria aplikatuko zitzaie 2020ko zerga-kuotan. Hau ere, soilik aplikatuko zen 2020. urtean eta urtarrilaren 1eko atzeragina. Hauek izan ziren bi hobariak. Bukatzeko dago hirugarren proposamena: Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulu, enbor edo antzekoekin. Hemen arazoak sortu dira ez duelako ulertzen idatzitakoa. Izan ere, azaltzen da Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulu, enbor edo antzekoekin metro kudratuko edo zatikako zenbat kobratzen zen. Arazoak izaten ziren eta juxtugoa eta argiagoa jartzea Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulu, enbor edo antzekoekin metro karratuko edo zatikia eguneko. Eta jarri dugun tasa 0,26/m²/eguneko. Horrela, argiago geratzen zen langileentzat eta herritarrentzat.”

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): *“Lehenik eta behin eskerrak ematea udal gobernari gure poposamena onartzeagatik . Izan ere, oso garrantzitsua iruditzen zaigu bertako ekoizleei gure babesa ematea. Aurretik ere lehen sektorea asko sufritu duen sektorea da eta pandemiarekin oraindik egoera lazgarriagoan utzi ditu gure baserritarrak. Garrantzitsua iruditzen zitzaigun. laguntza handiago ematea., horregatik gure eskerrak”.*

... Alkatea: *“Azken finean, Koronabirusa erangidako egoera eta ondorioei aurre egiteko neurriak dira hauek. Dira beste hainbat neurrien osagarri, azkenean suspertu plangintza osatzen dutenak. Geldiguneak izan ditu eragin kaltegarriak eta eragin horiek gutxitzeko, lausotzeko hartutako erabakiak dira.”*

Beraz, gai honetan, 2020ko ekainaren 19an, 2020/004588 erregistro zenbakia duen idatziaren bitartez, Udalbatza osatzen duten hiru taldeek, honako **EMENDAKIN ADOSTU** hau aurkeztu zuten:

“2020rako jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskalaren aldaketa.

Ekainaren 17an antolakuntzako batzordean, hurrengo irizpenaren alde bozkatu zen.

2.2.3 Eranskina: Azokak

Alarma-egoeran azokak egitea eten egin da. Berrekitea, segurtasun-neurri zorrotzen, edukiera mugatuen, e.a.en pean burutu da.

Udalak hainbat neurri hartu ditu, hala nola, azokak egiteko kokapen berriak ezarri ditu, eta beste hainbat ekimen aurrera eramán ditu, baina ezin daiteke ukatu, azokagileek kalteak izan dituztela. Hori dela eta, honako hau proposatzen da:

Eranskinaren aplikazio arauetan 7. puntu bat sartzea, soilik 2020rako, honako edukiarekin

7. Hobariak:

Hiruhilabetekako kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboiei % 100eko hobaria aplikatuko zaie 2020ko 2. hiruhilabeteko zerga-kuotan.



TOLOSAKO
UDALA

Urteko kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboei % 25eko hobaria aplikatuko zaie 2020ko zerga-kuotan.

Hobari hauek soilik aplikatuko dira 2020. urtean.

Aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.

Oraingo zuzenketarekin, EAJ / E.H Bildu / PSE taldeak, hitzartutako hurrengo formulazioa proposatuz, aurreko irizpena zuzentzea proposatzen dute:

AKORDIO PROPOSAMENA:

Hiruhilabetekako kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboei % 100eko hobaria aplikatuko zaie 2020ko 2. eta 3. hiruhilabeteko zerga-kuotan

Urteko kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboei % 50eko hobaria aplikatuko zaie 2020ko zerga-kuotan.

Hobari hauek soilik 2020. urtean aplikatuko dira.

Aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.”

Batzarkideek, adostutako enmendakina bozkatu dute, eta bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla **eta** Jose M^a Villanueva Telleria

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** udal taldeek aurkeztutako enmendakin adostua.

Ondoren, plenoko kideek bozkatu dute Antolakuntza Batzordeak onartutako irizpena, onartutako zuzenketa sartu ondoren:

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO EKAINAREN 17KO IRIZPENA, ONARTUTAKO ZUZENKETAREKIN ALDATUTA

3/2020 Foru Dekretu-Aruak, maiatzaren 12koak, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzagarik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituenak eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituenak, bere 3. artikuluan honako hau jasotzen du:



TOLOSAKO
UDALA

3. artikulua. Hobariak tasetan.

1. 2020an, toki-erakundeek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren II. tituluko III. kapituluko 3. atalaren arabera ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eragindakoak izan beharko dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboari aplikatu ahal izango zaizkie.

2. Artikulu honetan aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izan ahalko dute.

Tolosako Udala, hiri ekonomia sustatzeko eta hainbat sektorek jarduera nahitaez uzteagatik izan dituzten ondorioak arintzeko, hainbat neurri proposatzen ari da.

3/2020 Foru Dekretu-Arauaren babesean, jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskalean ondorengo aldaketak proposatzen dira; alde batetik azokak eta besterik, terrazak okupatzeagatik. Aldaketa hauek izango lirakeke soilik 2020 ekitaldirako eta bereziki kaltetutako kolektibo hauentzat.

Bestalde, garabiekin bide publikoa okupatzeagatik dagokion tarifan aldaketa bat proposatzen da.

2.2.3 Eranskina: Azokak

Alarma-egoeran azokak egitea eten egin da. Berrekitea, segurtasun-neurri zorrotzen, edukiera mugatuen, e.a.en pean burutu da.

Udalak hainbat neurri hartu ditu, hala nola, azokak egiteko kokapen berriak ezarri, eta beste hainbat ekimen aurrera eraman, baina ezin da ukatu, azokagileek kalteak izan dituztela. Hori dela eta, honako hau proposatzen da:

Eranskinaren Aplikazio arauetan 7. puntu bat sartzea, soilik 2020rako, honako edukiarekin:

7. Hobariak:

Hiruhilabetekako kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboak % 100eko hobaria aplikatuko zaie 2020ko 2. hiruhilabeteko zerga-kuotan.

Urteko kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboak % **50**eko hobaria aplikatuko zaie 2020ko zerga-kuotan.

Hobari hauek aplikatuko dira soilik 2020. urtean.

Aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.



2.2.5. Eranskina: Udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

2. Terraza eta instalazioak bide publikoan

Alarma-egoerak establezimenduak ixtea ekarri du. Horregatik, deseskalatze faseetan ezarritako baldintza zorrotzek (edukiera mugatua, segurtasun-distantziak, etab.) eragindako ondorio negatiboak arintzen laguntzeko, honako hau proposatzen da:

Aplikazio arauetan 6. puntu bat sartzea, soilik 2020rako, eta terraza eta instalazio osagarrien tarifei dagokienez:

6. Hobariak "2. Terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan" atalean:

% 50eko hobaria aplikatuko zaie, 2020rako ezarritako tarifei soilik, Covid garaiaren aurretik baimendutako okupazioetarako.

% 100eko hobaria ezartzen da, 2020rako soilik, Covid-aren deseskalatze fasean, Udalak aldi baterako baimendutako m² gehikuntzentzat, ahal den neurrian, aurrez baimendutako edukiera/okupazioa eskakizun berrietara egokitzen laguntzeko.

2020ko eskaera berriei okupazioa kalkulaterakoan, Covid aurreko irizpideak aplikatuko zaizkie, eta aurrez aipatutako hobariak aplikagarri izango dituzte.

Aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.

7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulu, enbor edo antzekoekin

Honako hau proposatzen da:

Gaur egun:

7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulu, enbor edo antzekoekin, m2 edo zatikia hileko edo zatikiko	Por ocupación de vía pública con camión grúa, elevadores de obra, módulos de obra, troncos y similares. Por m ² o fracción y mes o fracción	7,75
---	--	------

Gaur egun, gutxienez m2 bat eta hilabete bat aplikatzen dira

Proposamena:

m² eta eguneko aplikatzea. Tarifa 0,26 € m2 eta eguneko izango litzateke.



TOLOSAKO
UDALA

Honela geratuko litzateke tarifen taula:

UDALEKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURGAIN ETA LURRAZPIAREN ETA GAINERAKO LURSAIL PUBLIKOEN ERABILERA PRIBATIBOA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA	UTILIZACION PRIVATVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE LAS VIAS PUBLICAS MUNICIPALES Y DEMAS TERRENOS DE DOMINIO PUBLICO	EUROAK 2020
1. Ondasun edo zerbitzuen salmenta automatikoko banpon aparatuak, m ² edo zatikia hileko	1. Aparatos de venta automática de bienes o servicios, accionadas con monedas. Por m ² o fracción y mes o fracción	14,45
2. Terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan : mahaiak, aulkia, upelak edo antzekoak, m ² edo zatikia: Tarifa 1: 2.1. Urtebetekoa 2.2. Maiatzetik urrira 2.3. Ekainaren 15etik irailaren 15era Tarifa 2: 2.1. Urtebetekoa 2.2. Maiatzetik urrira 2.3. Ekainaren 15etik irailaren 15era	2. Terrazas e instalaciones complementarias en la vía pública: mesas, sillas, barriles o similares, por m ² o fracción: Tarifa 1: 2.1. Anual 2.2. Mayo a octubre 2.3. De 15 de junio a 15 de septiembre Tarifa 2: 2.1. Anual 2.2. Mayo a octubre 2.3. De 15 de junio a 15 de septiembre	104,50 83,60 52,25 73,15 58,50 36,60
3. Zaborrak edo materialak gordetzeko edukiontzia, bakoitzeko eta eguneko	Contenedores para depósito de escombros y materiales. Por unidad y día	5,00
4. Zabor, lur, harea, hormigoi, etab. M ² eta eguneko	Por escombros, tierras, arenas, hormigones etc. Por m ² y día	2,15
5. Lokal edo establezimendu barrutik zuzenean bide publikora egiten den edozein artikuluren salmentarekin egindako lurzoru aprobetxamendua, bide publikoaren zati osagarri bezala erabiliz, m ² edo zatikia hileko edo zatikiko	Por aprovechamientos del suelo con la venta de cualquier clase de artículos desde el interior de locales o establecimientos directamente a la vía pública utilizando ésta como parte integrante del negocio. Por m ² o fracción y mes o fracción	6,10
6. Kubazain automatikoa, bakoitzeko eta urteko	Cajero automático, por unidad al año	376,85
7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulo, enbor edo antzekoekin, m ² edo zatikia eguneko	Por ocupación de vía pública con camión grúa, elevadores de obra, módulos de obra, troncos y similares. Por m ² o fracción y día	0,26
8. Aurrekoetan ikusi ez diren kasuetan, urteko eta metro karratuko:	En los casos no incluidos en los anteriores, por metro cuadrado al año:	
Industriagunean	zona industrial	12,95
Industriagunea ez den lurzoru	zona no industrial	15,70
Iggogailuak	ascensores	68,05
9. Hilerria Herentzia izaerako panteoi transmisioak, ezkontideen eta guraso eta seme-alaben artean Gainerako transmisioak	Cementerio: Transmisiones a título hereditario entre conyuges, padres a hijos, de panteones Otras transmisiones	133,70 1.226,25
10. Kioskoak eta kabinak	Quioscos y cabinas:	
10.1. ONCEren kabinak eta argazki ateratzekoak. Bakoitzeko eta urteko	10.1 Cabinas de la O.N.C.E y obtención de fotografías. Por unidad y año	528,45
10.2. Prensa kioskoak. Bakoitzak hileko	10.2 Quioscos de prensa. Por unidad y mes	90,75
11. Belena patioan bizikleta bakoitzeko urtean	Patio de Belen por bicicleta al año	62,90

Beraz, hasieran aurkeztutako proposamena bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal eta Ander Figuerido Zubiria.

Hau dela eta hau, Udaltza Plenoari proposatzen zaio onartzea honako



IRIZPENA

LEHENA.- Jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskalaren ondorengo eranskinen aldaketei hasierako onarpena ematea. Eranskinetan egindako aldaketak honela geratuko lirateke:

2.2.3 Eranskina: Azokak

Eranskinaren Aplikazio arauetan:

7. Hobariak.

Hiruhilabetekako kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboari %100eko hobaria aplikatuko zaie 2020ko 2. hiruhilabeteko zerga-kuotan.

Urteko kuotak ordaintzen dituzten subjektu pasiboari **%50 eko** hobaria aplikatuko zaie 2020ko zerga-kuotan.

Hobari hauek soilik aplikatuko dira 2020. urtean

Aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.

2.2.5. Eranskina: Udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

2. Terraza eta instalazioak bide publikoan

Eranskinaren aplikazio arauetan:

6. Hobariak "2. Terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan" atalean.

%5 0eko hobaria aplikatuko zaie, 2020rako ezarritako tarifei soilik, Covid garaiaren aurretik baimendutako okupazioetarako.

% 100eko hobaria ezartzen da, 2020rako soilik, Covid-aren deseskalatze fasean, Udalak aldi baterako baimendutako m2 gehikuntzentzat, ahal den neurrian, aurrez baimendutako edukiera/okupazioa eskakizun berrietara egokitzen laguntzeko.

2020ko eskaera berriei okupazioa kalkulatzeko, Covid aurreko irizpideak aplikatuko zaizkie, eta aurrez aipatutako hobariak aplikagarri izango dituzte.

Aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.

7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulu, enbor edo antzekoekin



TOLOSAKO
UDALA

UDALEKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURGAIN ETA LURRAZPIAREN ETA GAINERAKO LURSAIL PUBLIKOEN ERABILERA PRIBATIBOA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA	UTILIZACION PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE LAS VIAS PUBLICAS MUNICIPALES Y DEMAS TERRENOS DE DOMINIO PUBLICO	EUROAK 2020
1. Ondasun edo zerbitzuen salmenta automatikoko txanpon aparatuak, m2 edo zatikia hileko	1. Aparatos de venta automática de bienes o servicios, accionadas con monedas. Por m ² o fracción y mes o fracción	14,45
2. Terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan : mahaiak, aulkiak, upelak edo antzekoak, m2 edo zatikia: Tarifa 1: 2.1. Urtebetekoa 2.2. Maiatzetik urrira 2.3. Ekainaren 15tik irailaren 15era Tarifa 2: 2.1. Urtebetekoa 2.2. Maiatzetik urrira 2.3. Ekainaren 15tik irailaren 15era	2. Terrazas e instalaciones complementarias en la vía pública: mesas, sillas, baniles o similares, por m ² o fracción: Tarifa 1: 2.1. Anual 2.2. Mayo a octubre 2.3. De 15 de junio a 15 de septiembre Tarifa 2: 2.1. Anual 2.2. Mayo a octubre 2.3. De 15 de junio a 15 de septiembre	104,50 83,60 52,25 73,15 58,50 36,60
3. Zaborrak edo materialak gordetzeko edukiontzia, bakoitzeko eta eguneko	Contenedores para depósito de escombros y materiales. Por unidad y día	5,00
4. Zabor, lur, harea, hormigoi, etab. M2 eta eguneko	Por escombros, tierras, arenas, hormigones etc. Por m2 y día	2,15
5. Lokal edo establezimendu barutik zuzenean bide publikora egiten den edozein artikuluren salmentarekin egindako lurzoru aprobetxamendua, bide publikoa negozioaren zati osagari bezala erabiliz, m2 edo zatikia hileko edo zatikiko	Por aprovechamientos del suelo con la venta de cualquier clase de artículos desde el interior de locales o establecimientos directamente a la vía pública utilizando ésta como parte integrante del negocio. Por m ² o fracción y mes o fracción	6,10
6. Kutxazain automatikoa, bakoitzeko eta urteko	Cajero automático, por unidad al año	376,85
7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulo, enbor edo antzekoekin, m2 edo zatikia eguneko	Por ocupación de vía pública con camión grúa, elevadores de obra, módulos de obra, troncos y similares. Por m ² o fracción y día	0,26
8. Aurrekoetan ikusi ez diren kasuetan, urteko eta metro karratuko:	En los casos no incluidos en los anteriores, por metro cuadrado al año:	
Industriagunean	zona industrial	12,95
Industriagunea ez den lurzorua	zona no industrial	15,70
Igogailuak	ascensores	68,05
9. Hilerria	Cementerio:	
Herentzia izaerako panteoi transmisioak, ezkontideen eta guraso eta seme-alaben artean	Transmisiones a título hereditario entre conyuges, padres a hijos, de panteones	133,70
Gainerako transmisioak	Otras transmisiones	1.226,25
10. Kioskoak eta kabinak:	Quioscos y cabinas:	
10.1. ONCEren kabinak eta argazkiak ateratzekoak. Bakoitzeko eta urteko	10.1 Cabinas de la O.N.C.E y obtención de fotografías. Por unidad y año	528,45
10.2. Prentsa kioskoak. Bakoitzak hileko	10.2 Quioscos de prensa. Por unidad y mes	90,75
11. Belena patioan bizikleta bakoitzeko urtean	Patio de Belen por bicicleta al año	62,90

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

HIRUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin-behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean sartuko argitaratu arte.



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** Antolakuntza Batzordeak onartutako irizpena zuzenduta.

6. 2020KO AURREKONTUKO KREDITUEN EZ ERABILGARRITASUNAREN AITORPENA ONARTZEA.

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia Ogasuneko zinegotzi delegatuak irizpenaren berri eman du. *“Covid-19ren ondorioz udalaren diru-sarrerak jaitsi egin dira hainbat Euskal erakundeetan bezala, Eusko Jaurlaritzan, Diputazioetan, e.a. Gure kasuan, jaitsiera eman da, alde batetik FOFINen ekarpena partaidetza zerga jaitsi egin delako eta horretaz diru sarrera propioak jaitsi egin direlako. Adibidez, banaturiko dokumentazioan azaltzen den bezala, OTAren diru sarrerak, ICIOak, Leidor sarrerak, kultur tailerretako itzuli beharreko kuotak, Musika Eskolakoak eta lehen onartu izan ditugunak terrazak, azokak, e.a.. Bidean ezusteko gastu batzuk sortu zaizkigu premiazko direnak eta aurre egin beharrekoak. Joan den hilabetean adostu genuen bosgarren kreditu aldetan. Egoera ikusita 2020. urteko aurrekontuak egokitu behar ziren egungo egoerari harrapatu eta erantzuteko eta baita etorkizuna begira ere. 2019ko likidazioa joan den hilabetean plenoan aurkeztu genuena eta egin eta gero ekin genion aurrekontuaren birmoldaketari. Hori bai, argi geneukana zen gure lehentasunak zeintzuk ziren eta gure kasuan birmoldaketa zen diru-laguntzak mantentzea eta jaitsiera ez aplikatzea horrelako herriko elkarteek, eragileek eta taldeak haien jarduerak babestu egiten genituen. Beste gauza bat argia geneukana zen aurtengo aurrekontuak aurreikusita geneuzkan egitasmoak mantentzea. Horrekin lotzen genuen enpresa txikien eta gremioen jarduera ekonomikoa sustatzea. Kontutan hartu behar duguna Tolosan gure aurrekontuetan azaltzen diren proiektuak aurrera eramaten direnean lizitazioak ikusten baldin badira aurkeztzen diren enpresak izaten dira tolosaldeko inguruko enpresak eta haiek ekartzen duen gremioak izatea eta dominoren efektua egiten du, batek funtzionatzen badu haien inguruan beste batzuk mugitu egiten dira. Krisi garaian argi daukagu inbertsio publikoa ezinbestekoa dela jarduera bultzatuz, ekonomia sustatuz, suspertuz. Oinarri hauek abiapuntuak jarrita planteatzen genuen jaitsiera zen 935.000 gutxi gora beherako eurokoa eta proposatzen dugu jaitsiera izatea ez erabilgarritasun izaera aurrea begira momentu batean izaera hori aldatu egin behar bazaio administratiboki arinago zen*



eta errazagoa zen.. Zergatik hori? Aurkitzen garelako egoera aldakorrean. Gaur egun, ezin duguna egin agian hemendik bi hilabeteetara posible izango da edo alderantziz, ez dakigu zer egoeratan aurkitzen garen. Azpimarratu nahi nuke ariketa egin dela 2019. urteko likidazioa egin ondoren, ezagutu ondoren baita ere gure posizioa eta gerakinak zeintzuk ziren eta aukera ematen zigulako bai diru-laguntzak mantentzeko, bai proiektuak mantentzeko eta baita ere gizarte alorrean sortu diren eta sortuko diren beharrei aurre egiteko.”

... Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU): *“Osasun larrialdi hau martxoaren erdialdera etorri zitzaigun, duela hiru hilabete inguru eta berehala agerikoa izan zen instituzioak eta honenbeste Tolosako Udalak ere ez ohiko neurriak hartu beharko zituela, ez bakarrik osasun alorrean baizik eta, baita osasun larrialdi horretatik eratorritako ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko neurriak hartu behar ziren. Neurri horiek hartu dituzu nahiz eta gehientsuenak guk nahiko genuena baino beranduago edo elkarlana gutxiagorekin izan diren. Baina ez nahiz eztabaida horretan gehiegi sartuko, lehen atera den gai bat da eta oraintxe aurrean daukagun erronka handi honetan jarrik nahiko nuke arreta. Zuk aipatu duzun bezala aurrekontu birmoldaketa honetan. Labur-labur esan da 2.837.786,37 euro, hiru milioi, zifra potoloa. Aurrekontu birmoldaketa hau 935.506 eurotako gastu murrizketa besterik ez du jasotzen eta bertan hainbat partida gutxitu direnak, besteak beste bertan geratu diren ekintzak eta jarduerak. Birmoldaketa hau jaso genuenean galdera bat etorriko zitzaizgun burura eta horixe luzatuko dizuet. Gutxi gora behera gaur zerbait azaldu duzu Begoña, baina luzatu egingo dizut. Zer gertatuko da gaionontzeko beste 2 milioi euro horiekin. Nola edo zer partidetan edo zertan oinarritua murriztuko da partida hori? Plan bat dago horren atzetik? Baliabide berritolaketa plan bat dago murrizketa hori nola egin erabakitzeko garaian?”*

... Begoña Tolosa Mendia Ogasuneko zinegotzi delegatua: *“Lehen esan bezala, guk egin dugun ariketa izan da, 2019ko aurrekontuaren likidazioa aurreikusita. Hor dauden gerakinak uzten diguna da azkenengo urte hauetan, eta azkenengo legealdian baita ere kudeaketa ona izan delako ikusi genuen 2019ko gerakina zela 13 milioikoa. Hor egin egin izan dituguna da beste kredituak txertatu eta kreditu ezberdinak egin ditugu. Baina guk aurretik egin genuena ere izan zer gure ariketa, hortik diru-laguntzak mantendu eta gure inbertsioak mantentzeko bagenekiena zen jeitsiera, ez murrizketa baizik jeitsiera eman zena zela zati bat gaur jaso beharko zuen gaurko aurrekontua eta beste zati bat jasan beharko zuen gerakina, familiar kasuetan bezala, gerakinak daude laguntzeko behar direnean. Momentu honetan jeitsiera handiena, kolpe handiena, gauzak ez badira asko aldatzen, kolpe handiena jaso duguna izan dira gaur egun dauzkagun gerakinak. Horrela lotuko duguna da, alde batetik, herrian lehen aipatu izan ditugun bi puntu horiek, diru-laguntzak mantentzea herritarren, eragileen, taldeen eta elkarten jarduerak, haiek jarraitze zezateela, behintzat aurten martxa horrekin eta gero beste zati oso inportantea izaten da jarduera ekonomikoa egin behar duena da sustatu eta suspertu. Horretarako egin behar duguna da guk dauzkagun baliabideak eta, kasu honetan baliabidea ekonomikoak jartzen ditugu mahai gainean hori dena aurrera emateko. Guk laguntzen ez baduzu edo krisiaren garaian instituzioak ez badituzte erabiltzen beraiek dauzkaten baliabideak ez gara aurrera aterako. Guk hjartzen dugu mahai gainean eta da apustu inportatea da eta udaltexea egiten ari den esfortzua oso inportatea da.”*



... Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU): *“Guk nahi genuen analisia, aurrekontuen birmoldaketa honen analisi bat ikusteko zer norabideetan edo zertan oinarrituta hartu diren erabaki horiek kreditua murrizteko erabaki hauek. Gerakinak hor daude, egia da, nik zuek baino gutxiago jakingo dudala baina ulertua neukan sarrerak gastuekin parekatu egin behar dela ahal den neurrian, beti ezin bada ere. Guk begiratu azkar bat eman birmoldaketa honi ondorio batzuk ateratzen saiatu ginen. Hasiara batean zentzuzko iruditzen zitzaigun kultura, festa eta gazteriak alorrek murrizketaren % 44 jasotzea, ekintzak eta jarduera asko eta asko bertan behera geratu direlako. Azkenean kreditu horiek ez direlako erabiliko. Giza-baliabideak, Antolaketa eta Informazio alorrek ere murrizketaren %10 jasotzea ikusi genuenagatik informazio sistemen migrazio proiektu hori pixka bat berrantolatu delako. Zentzuzkoa dirudi ere Garapen ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo alorrek aldaketak ez jasotzea hain zuzen ere, zuk komentatu duzunarengatik, gure merkataritza txikia, ostalariak, enpresa txikiak beraien diru iturri nagusia apenas diru iturri izan ez duten momentu honetan suspertzen lagundu behar zaielako. Baina balorazio honetan harrigarria iruditzen zitzaigun murrizketaren %28a Gizarte Zerbitzuen alorrean ikustea. Zehazki 257.000 euro inguru eta, aldi berean, publizitate eta komunikazio partida guztietatik 2.000 euro besterik ez gutxitzea aurrekontuaren %12 murrizte honetan eta hainbat inbertsio eta proiektu urbanistikoaren partidak bere horretan uztea herritarren beharrak lehenetsi beharrean. Agian inbertsio guztiak atzeratzen dira. Hau esanda ere, hala ere, uste osoa daukagu gure herritarrek ez dituztela babes gabe utziko eta nola edo hala saiatuko zaretela nik oraintxe aipatu ditutan bi datu horiek nahiko iluna, horretan ez dugu zalantza egiten, horretarako badaude nahiko tresna ere. Beraz, ez genuke iaurrekontuen birmoldaketa honen irakurketa sakon batean sartu nahi, iruditzen zaigulako hondoa segituan joko genukeela, sakontasun gutxiko aldaketak iruditzen zaizkigulako, hausnarketa gutxiko aldaketak iruditzen zaizkigulako. Birmoldaketa honi eutsi aurretik, duela hilabete inguruan, krisiari aurre egiteko proposamen bat aurkeztu genizuen. Bertan krisiaren ondoriaren erantzun egokia emateko neurriak aipatzen genituen alor eta alor. Gaur, aurrean daukagun honi erronkari aurre egiteko gida larriak finkatu genuen, Udalak aurretiak nahiko denborarekin eta elkarlanean hausnartutako erabaki onenak emateko gure herritarrei. Guk proposamen horretan argi genuka zer egin behar zen behintzat gure norabidea argi geneukan, behin sarreraren murrizketa zenbatitza lehentasunak ezarri behar ziren. Alde batetik, ezinbesteko gastuak zehaztu eta horiek noski mantentzea proposatzen genuen eta. Bestetik, atera zitezkeen gastuak adostu eta hauen artean lehentasunak adostu behar genituela pentsatzen genuen, beti ere ezinbesteko gutxieneko batekin. Atzean pertsonak zituzten inbertsio gastu eta proiektuak lehenengo larri horretan geratzea, lehenestea behar hauek. Hori zen guk proposatzen genuen estrategia. Aurrekontuen birmoldaketa honek, Udalak krisi honi aurre egiteko, gure ustez, estrategia erakutsi beharko luke. Eta orain arte ikusitakoa ez digu estrategia zehatz baten zentzu gehiegirik ematen. Gaurko errealitateak erakutsi digu beharrak aldatu egiten direla eta gu ere horretara moldatu egin behar dugula, zuk aipatu duzun bezala, legeak ere aldatzen egiten direla eta hemendik hilabete batzuetara ere aldatu egingo direla. Baina era berean, ikusten dugu kudeaketa eredu batek etorkizuneko behar posible horiek aurreikusi egin behar direla. Herritarren behar edo eskakizunei erantzun ez baino, ahal den neurrian horiei aurre hartzen saiatu behar dugula. Gaur aurkeztutako aurrekontu birmoldaketa honek, gure ustez, ez du norabide zehatza erakusten, behintzat ez*



guri gehiegi guri gustatzen zaigun norabidea. Ez dugu hausnarketa gehiegirik ikusten 3.500.000 euroko sarreran murrizketa daukagu eta milioi bateko gastu murrizketa. Guk gaur plan bat espero genuen, konpromisoak espero genituen, halabeharrez bertan behera gelditu diren partidak egokitzeaz haratago, asmo zehatzak espero genituen. Hau ikusi ez dugunez puntu honetan abstenitu egingo gara.”

- ... Alkatea: *“Ea sumatu duzuen puntu ilun honetan argitasuna jartzeko aukera daukagun. Egin duzuen zuen hausnarketa, modu publikoan ere egin duzue lehenago ere. Aipatzen duzue ez duzuela ikusten krisiari aurre egiteko estrategiarik, hori da aipatzen duzuenena. Ariketa honetan zenbat partida izozteko proposamena ikusten duzuela. Esprikatu du Begoñak, partida horiek jartzen dira ez erabilgarri moduan, hor ere badago strategi bat bere horretan, egiteko aukerarik gabe gelditu diren jarduerak jaisten direlako partidetan, ez besterik. Hori bada erabaki bat eta, gainera, egiteko modua dagoenean ere, egiteko aukera errazagoa bilatzen bada egiteko asmoarekin. Azken finean, gure ibilbidea eta nik ikusten dut egin dugun bileretan aipatu aipatu egin ditugula eta dituzuen zenbakiak eta antolaketa bileran aipatu dira, bozeramaile bileretan komentatu ditugu, eta hartutako hainbat neurriak azalpenak ere eman dira. Baina, gainera aipatzen duzue eta hori deigarria egin zaigu zuen estrategia horretan pertsonak ez dituzten proiektuak atzera bota beharko liratekeela edo egin gabe utzi, edo atzeratu edo ez dakit zehazki zer izango litzatekeen proposamena. Atzera zitezkeen gastuak. Guk berriz aipatzen ditugun udal honetan onartzen diren gastu guztiak pertsonak dutela ardatz. Orduan, zein neurri, proiektu edo egitasmo ez dituzue ikusten egokiak momentu honetan aurrera eramateko? Zein da zehazki egiteari utziko zeniotena? ? eta zein da proposamena zehatza? Nolabaiteko kritika baten ondotik proposamen zehatzik ez duzue aurkeztu. Esaldi borobilak bai, pixka bat konfusioa eragin dezaketenak baina ez besterik, norabiderik gabe, hausnarketa gabe, aurreikuspenik gabe gabiltzala esan duzue. Bueno badakizue, Begoñak aipatu du oso ondo gure ibilbidea zein izan da aurrekontuak birmoldatzeko eta suspertu plana garatu ahal izateko. Lehenik eta behin, 2019ko likidazioa egin behar genuen, aipatu genuen bileretan jakitzeko oso ondo zein zen udaletxe honen egoera finantzarioaren argazkia. Zein da gerakina, eta, behin gerakina ezagututa horrek baldintzatuko lukeelako hartu beharreko erabakia eta neurriak hartzeko gaitasunak gainontzeko erabakiak hartu. Egin genuen likidazioa, aurkeztu genuen osoko bilkura batean eta jada badakigu gerakina zenbatetan gabiltza eta zer gaitasuna daukan udal honek batetik bestetik egoerari erreparatu behar zaio, baita ere, eta horretarako eragile desberdinekin egon gara kontrastatzeko pixka bat aurrean dugun eragina. Konfinamenduak edo geldiuneak eragin duena sektore ekonomiko guztiei, herriko sektoreei. Hortaz ahal izan den neurrian zein da gure estrategian? Ahal izan den neurrian 2020ko aurrekontuetan jasotako laguntzak, egitasmoak eta proiektuak mantentzea. Zein da hona ekarri duguna eta Begoña aipatu duen ariketa? Partidaz partida egin behar izan du da gaur egungo aurrekontuaren azterketa ondorioak handiak izan direlako, egoera udal honen aurrekontuari eragin dien ondorioak handiak izan dira partida guztietan. Beraz, sailburu bakoitzak eta ogasun sailak bereziki egin behar izan du du partidaz partida azterketa bat, baita ere kontratu bakoitzarena. Horren ondorioz, argazkia aldatu egiten da. Egia da Aitana aipatu duzuna, sarrerek eta gastuak parekatuak egon behar duela, baina gaur ez ginen zerotik abiatzen baizik, aurretik onartuta zegoen aurrekontu batetik abiatzen ginen. Eta hor ariketa konplikatuago da. Baina 2019ko likidazioak eman digu aukera bat*



egoerari eusteko eta aipatu duzuen premisa horren barruan gure estrategia oinarritzeko. Likidazioa eskuartean, aurreikuspenak, ez bakarrik epe motz batean. Aipatu du Begoña ere, tokatu zaigu, ziurgabetasun egoera gestionatzea, hori maiz aipatzen dugu. Beraz, bai epe ertainera eta luzera begira hartu behar dira erabakiak egoera oraindik ere aldakorra delako, ziurgabetasunez beteta eta egoera honen oraindik ere ikusi ez ditzakeen ondorioak ekarri dituelako seguru. Horregatik aurreikuspenak egin ditugu, egungo beharrei erantzuteko baina baita ere etorkizunean sor litekeen horiei aurre egiteko: Lehentasuna zein dira? Lehentasuna da tolosarron ongizatea bermatzea, hiri ekonomia suspertzea maila berdinean, pentsatzen dugulako ongizatea bermatzeko estrategiarik onena dela hiri ekonomia suspertzea eta nola ez, gure izaerari eustea. Beraz, neurriak estrategian ondotik, neurriak Begoñak aipatu dituenak, diru-laguntza guztiak mantendu, kirol, kultur eta gizarte alorreko taldeen jarduera babesteko, haien lana erabat lotuta dago gure izaerekin eta gainera herri bezala gizarte honek eskatu eta behar duen duen hori ematen duelako baita ere talde horiek. Inbertsioa publikoa mantentzen oso inportantea. Aurtengo proiektuak mantentzeko ahalegina egin dugu. Datorren urteko egoera zein den ez dakigu oraindik baina inbertsio publikoa orain mantentzeak jarduera ekonomikoa ere sustatzen eta sostengatzen lagunduko duelako bereziko inguruko enpresa txikia, ertain eta gremioei lotuta. Inbertsio soziala areagotu behar da. Aipatu duzun murrizketa gizarte alorrean murrizketarik ez, behar gehiago dago egongo da partida handiagoak, inbertsio handiagoak egin behar dira eta murrizketak dira egin ezin ez zitezkeen jarduera horiek Oporrak bakean programa esate baterako. Eta neurri ekonomikak hartu, inbertsioa soziala areagotu, orain aipatu dudak bezala gastuak gora egingo dutelako eta neurri ekonomikoak hartu. Hainbat tasa hobaritzeak, lehen beste puntuak aipatu dugun bezala, eta beste dirulaguntza lerro berriak abian jartzea. Helburu nagusia da koronabirusaren eraginari aurre egitea eta horretarako pentsatzen dugu Tolosako udalak beste udalak bezala esfortzu bat egin behar dela momentu honetan. Suspertu Tolosa eta 32 neurri zehatzak gizarte larrialdietarako diru-laguntzak handitzea, familiei bideatutako dirulaguntzak handitzea, tokian kontsumitzeko bonoak, tokiko jarduera ekonomikoari zuzendutako laguntzak, azokak lagunak, larunbateko azokari lorutako proiektua berria, kaleak dinamizatzeko, komunitate izaera sendetzeko tolosatzen partehartze prozesua, beraz, argi daukagu zeintuk dira gure baliabideak eta dugun baliabidearekin nola iritzi dezakegun Tolosa eta tolosarren ongizatea. Beraz, esaten duzue ahalegina handiagoa egin beharko genukeela eta baina gauzak egiteari utzita. Deigarria da hori, Zer utziko dugu, tasak hobaritzeari utziko dugu, kultur eta kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzak kenduko ditugu, abegiko obra utziko dugu, gemikako arbola edo laskoai kaleko berritzeari utziko diogu jakinik kale horien bereskuratzeak hiritarrentzat Irisgarritagoak egingo duela kale horiel Emakumea etxea' guk pentsatzen dugu ahalmena dugu bitartean eta ahalmean duela hori jakiteko azterketa sakon at eginbehr zen aurrekontuetan eta hori egiten ibili gara bulu belarri azken hilabete hauetan plangintza hau egin ahal izateko. “

- ... Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU): *“Guk ez dut uste esaldi borobila bakarri bota ditugunik. Krisi honetan proposamen zehatzak luzatu ditugu eta batzuetan erantzuna ez da izan gure gustokoa baina proposamenak hor egon dira. Birmoldaketa hau egin aurretik ere proposamena luzatu genuen, egia da ez zen erabat zehatza guk ere udaletxeko egunerokotasunen inguruan ez dakigu gehigirik egunero ez gaudelako baina hasierako punto de partida behintzak proposamen*



genuela eta nire ustetan nahiko elaboratua zegoela. Bestalde, estrategia Begoñak azaldu du eta zuk ere pixkat gehiago esplikatuz duzu, ados, bat egin genezake estrategia horrekin, ez dakigu zehazki agian gauza dextente hitz egin beharko lirateke baina nik esan dudana da birmoldaketa honetan bakarrik ikusi dugula bertan behera geratu diren partidak.”

... Alkatea: *“Hori da zehazki puntu honetan onartzen dena da zer aurrekontu honetan egin gabe egiteko, aukerarik gabe gelditu diren jarduera horiek aurrekontutik kentzea. Ariketa hori egin behar da beste guztiak egiteko. Azken finean, gure helburua gure estrategia da ahal dugun heinean, ahal dugun ahalmenarekin, ez gelditzea eta mugitzen jarraitzea.”*

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): *“Esan duzu Olatz guk proposamen zehatzik ez dugula egin, horretarako, lehenik eta behin, elkarrekin eseri beharko genuke eta nik gonbidapen hori ez dugu jaso. Behin eta berriz esaten dugu elkarlanerako prest gaudela eta guk gure proposamenak idatziz helarazi genizuen eta oraindik erantzunaren zain gaude. Zuen proposamena, aldiz, Suspertu plana aipatzen duzu, hedabideetatik ezagutu genuen. Hortxe dago diferentzia, besterik gabe.”*

... Alkatea: *“Hori ez da egia, gainera neronek pasa nizuen korreo elektronikoz, eta ez da egia. Askotan errepikatzen duzue elkarlanerako proposamena eta asko eskertzen dizuegu, baina gero gauzatu egin behar da. Bozeramaile ilera udaletxe honetan egiten dira inoiz baino lehenago, elkarlanerako konfirmamenduak izan ditugun aukerakrisiaren jarraipen bilerak horretan parte hartu duzue teknikari eta udal ordezkari batera egoeraren jarraipena zehatz mehatz egiteko, egunero goizeko zortziak eta erdieta. Eez dakit oposizioan dauden alderdiak eskualdean aukera berdina izan duten, egunero parte hartuz. Eskatu zeneuen bozeramaile bilerak eskatu zenituzten, eskatu zenituen Idazkariririk gabe eta horrela egin genituen. Uste dut inoiz baino aukera gehiago izan duzuela eta neurriak departamentuetan hartzen joan diren neurrian aurkezten joan gaitzaizkizue. Beste gauza bat, badakit Aitana, batzutan denak ez zaretela egunero etortzen baina udalaren jardura ere, mekanika ere ez da ezagutu behar pixkat errespetatu behar da, proposamenak egiten direnean ez da lagun artean baten erabikitzen, sailera joaten dira proposamenak, proposamenak bertan aztertzen diren teknikoki, ez dugu ordezakrak hala nola erabakitzen eta aztertu eta erabaki egiten dira.”*

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): *“Komentatu duzu bozeramaile bileratan guk eskatu genuela idazkaria ez egotea, guk hori ez genuen hori eskatu. Zuek proposatu zenuten idazkariarik gabe egitea eta guk esan genuen berdin zitzaigula. Suspertu Tolosa plana hedabietan aterazen egun berdinean goizean jaso genuen emaillez.”*

... Alkatea: *“Neronek pasa nizuen korreo elektronikoz eta neurri horien inguruan aritu ginen aurretik.”*

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO EKAINAREN 17KO IRIZPENA

Covid-19 gaitzak sortutako osasun krisiak jardura ekonomikoari eragindako geldialdiak, zerga-bilketaren erorketa ekarri du atzetik. Gipuzkoan, apirilera arte, zerga-bilketa



likidoaren erorketa % 25 ingurukoa izango dela uste da, aurreko urteko epealdi berarekin konparatuta.

Jaitsiera horri aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 3/2020 Foru Dekretu-Arauaren bidez, erabaki du % 20ko murrizketa bat aplikatzea 2020an Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren konturako ordainketetan.

Tolosako Udalari dagokion murrizketa, 2.837.786,37 euro dira.

Gainera, Covid-19aren krisia eragin zuzena izaten ari da Udalaren beste diru-sarrera batzuetan.

Udalak 2020rako egindako sarrera-aurreikuspenetan Covid-19ak izango duen eraginaren estimazioa egin da. Aurreikuspen horiek taula honetan jaso dira:

Partida	Deskribapena	Behin betiko aurrekontua	Aurreikuspena Covid-19a	Jaitsiera
2 282.01 2020	ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ZERGA	505.419,51	323.126,67	182.292,84
2 310.05 2020	IBILGAILUAK ERAMAN ETA GORDETZEA	2.500,00	2.000,00	500,00
2 310.11 2020	MUSIKA ESKOLA	143.500,00	87.500,00	56.000,00
2 310.15 2020	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA	120.000,00	117.161,94	2.838,06
2 310.16 2020	KULTUR LANTEGIAK	55.000,00	35.750,00	19.250,00
2 311.03 2020	AZOKAK	53.724,68	37.644,58	16.080,10
2 311.05 2020	FERIAK	10.500,00	0,00	10.500,00
2 312.01 2020	HIRIGINTZAKO BAIMENAK	140.000,00	120.000,00	20.000,00
2 320.01 2020	APARKALDI MUGATUAREN TASA	740.000,00	585.000,00	155.000,00
2 321.04 2020	MAHAI ETA AULKIAK	80.000,00	40.000,00	40.000,00
2 321.05 2020	SALTOKIAK ETA BARRAKAK	25.000,00	16.583,83	8.416,17
2 390.03 2020	KULTUR JARDUERA	45.000,00	33.716,80	11.283,20
2 390.07 2020	DIRU SARRERAK LEIDOR ZINEMA	160.000,00	80.000,00	80.000,00
2 420.01 2020	ZERGA ITUNDUETAKO PARTAIDETZA	14.185.950,00	11.348.163,63	2.837.786,37
2 420.99 2020	ALDUNDIAREN TRASNFERENTZI ARRUNTAK	465.000,00	430.000,00	35.000,00
2 422.01 2020	BESTELAKO UDAL ENTITATEAK	12.000,00	4.500,00	7.500,00
2 471.01 2020	ENPRESEN TRANFERENTZI ARRUNTAK	15.500,00	14.000,00	1.500,00
	GUZTIRA			3.483.946,74

2020ko Aurrekontua orekatzeko helburuarekin, sarreren jaitsierei aurre egiteko beharrezkoa da neurriak hartzea. Neurri horietako bat izan daiteke 2020rako aurrekontuan hasieran onartutako kredituak murriztea edo ez-erabilgarri aitortzea.

Azken aukera horri helduz, aurrekontu partiden azterketa sakon bat egin ondoren, gaur egun erabilgarri dauden kredituetatik, honako hauek ez-erabilgarri aitortzea proposatzen da:



Partida	Deskribapena	Behin betiko aurrekontua	Ez erabilgarritasuna RCN	Behin betiko aurrekontu erabilgarria
1 0100.226.02.912.00 2020	PROTOKOLO GASTUAK.GOBERNU ORGANOAK.	15.000,00	5.000,00	10.000,00
1 0100.226.99.912.00 2020	BESTE ZENBAIT GASTU.GOBERNU ORGANOAK	18.000,00	8.000,00	10.000,00
1 0300.227.11.920.20 2020	INFORMATIKA ZERBITZUAK. INFORMATIKA	354.430,00	89.250,00	265.180,00
1 0500.226.99.231.00 2020	HAINBAT GASTU. GIZARTE ZERBITZUAK	20.000,00	4.500,00	15.500,00
1 0500.227.04.231.00 2020	KONTRATU SOZIO KULTURALAK. GIZARTE ZERB.	675.980,00	164.217,00	511.763,00
1 0500.471.01.231.92 2020	ENPRESEI.UZTURRE GERONTOLOGIKOA	157.000,00	30.000,00	127.000,00
1 0500.481.01.231.00 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. GIZARTE ZERB.	232.876,00	59.000,00	173.876,00
1 0800.221.99.333.10 2020	BESTELAKO HORNIDURAK. LEIDOR	45.000,00	10.250,00	34.750,00
1 0800.226.03.333.10 2020	PUBLIZITATEA. LEIDOR.	4.850,00	2.050,00	2.800,00
1 0800.226.06.326.20 2020	JARD.SOZIO KULTURALAK. MUSIKA ESKOLA	9.000,00	1.500,00	7.500,00
1 0800.226.06.332.10 2020	JARD.SOZIO KULTURALAK. LIBURUTEGIA	6.000,00	1.500,00	4.500,00
1 0800.226.06.334.10 2020	JARD. SOZIO KULTURALAK. KULTURA	188.330,00	43.500,00	144.830,00
1 0800.226.06.337.20 2020	JARDUERA SOZIO KULTURALAK. GAZTERIA	64.728,00	28.507,00	36.221,00
1 0800.226.06.338.00 2020	JARD.SOZIO KULTURALAK. JAIK	416.027,00	114.385,00	301.642,00
1 0800.227.04.333.10 2020	KONTRATU SOZIOKULTURALAK. LEIDOR	180.000,00	81.000,00	99.000,00
1 0800.227.04.334.10 2020	KONTRATU SOZIOKULTURALAK. KULTURA	32.000,00	32.000,00	0,00
1 0800.227.04.334.11 2020	KONTRATU SOZIOKULTURALAK. KULTUR TAILERRAK	94.000,00	30.000,00	64.000,00
1 0800.227.04.334.12 2020	KONTRATUAK. MUSIKA BANDA	152.000,00	50.400,00	101.600,00
1 0800.481.01.334.10 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. KULTURA	178.500,00	14.000,00	164.500,00
1 0800.481.01.337.20 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. GAZTERIA	24.700,00	2.700,00	22.000,00
1 0800.481.01.338.00 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA. JAIK	98.134,00	2.804,00	95.330,00
1 0900.226.99.320.00 2020	BESTE HAINBAT GASTU. HEZKUNTZA ZERBITZUA	10.000,00	7.000,00	3.000,00
1 0900.227.07.335.10 2020	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. EUSKARA	11.000,00	6.000,00	5.000,00
1 0900.481.01.335.10 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. EUSKARA	358.709,00	7.000,00	351.709,00
1 1000.226.07.341.00 2020	KIROL JARDUERAK. KIROLAK	32.750,00	10.000,00	22.750,00
1 1000.481.01.341.00 2020	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. KIROLAK	309.800,00	40.250,00	269.550,00
1 1200.226.99.920.40 2020	BESTE GASTUAK. KOMUNITATEA ETA GOBERNANTZA	72.500,00	69.500,00	3.000,00
1 1400.226.06.231.60 2020	JARD. SOZIO-KULTURAK. BERDINTASUNA	67.645,00	5.943,00	61.702,00
1 1400.227.04.231.60 2020	KONTRATUAK. BERDINTASUNA	63.600,00	15.250,00	48.350,00
	GUZTIRA		935.506,00	

Kontuhartzaileak, egoera honen aurrean, 2020ko aurrekontuaren egonkortasunari, finantza iraunkortasunari eta gastu araua betetzeari buruz egindako azterketaren azalpenak eman ditu.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal eta Ander Figuerido Zubiria.

Horiek horrela, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituen ez-erabilgarritasuna aitortzeko espediente, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin eta kapitulurako laburpen honen arabera:



Kapitulua	Izena	Ez erabilgarriak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	779.752,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	155.754,00
EZ-ERABILGARRIAK, GUZTIRA		935.506,00

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzio botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **onartu du** udal honen aurrekontuko kredituen ez-erabilgarritasuna aitortzeko espedientea.

7. ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTUREN ORDAINKETA.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO EKAINAREN 17KO IRIZPENA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 61. artikulua xedatutakoaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Hemen zehazten diren faktura hauek 2019ko ekitaldiko faktura data dute eta 2020an jaso dira, taula honetan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2020-03-27	2019-07-11	0300.221.03.920.30	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562095	Udaletxeko gasaren kontsumoa (2019-05-29 / 2019-06-29)	604,82
2020-03-27	2019-07-11	0300.221.99.326.10	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562054	H.H.I.eko eraikineko gasaren kontsumoa Igeralde 25 (2019-06-28 / 2019-06-30)	1,08
2020-03-27	2019-07-11	0300.221.99.326.10	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562059	H.H.I.eko eraikineko gasaren kontsumoa Igeralde 23 (2019-06-28 / 2019-06-30)	1,08
2020-03-27	2019-07-11	0300.221.99.920.31	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562063	Arramele kaperako gas kontsumoa (2019-04-24 / 2019-06-30)	47,03
2020-03-27	2019-07-11	0300.221.99.231.00	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562067	Izaskun Andre M ^a 4-00 gas kontsumoa (2019-05-01 / 2019-06-27)	49,15
2020-03-27	2019-07-11	0300.221.03.323.10	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562056	Haur Eskolako gas kontsumoa (2019-04-25 / 2019-06-18)	492,72
2020-03-27	2019-07-11	0300.221.03.323.10	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19326000448509	Haur Eskolako gas kontsumoa (2019-06-19 / 2019-06-30)	64,87
2020-03-28	2019-07-12	0300.221.99.326.10	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562093	Musika Eskolako gas kontsumoa (2019-05-29 / 2019-06-25)	433,24



TOLOSAKO
UDALA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordura arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez. 2019ko abenduaren 31n, obligazio horiek onartu gabe zeuden, eta 2020ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura horiek onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Ander Figuerido Zubiria

Horiek horrela, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Itxitako ekitaldiko faktura hauek onartzea:

FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KOPURUA
2019-07-11	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562095	604,82
2019-07-11	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562054	1,08
2019-07-11	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562059	1,08
2019-07-11	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562063	47,03
2019-07-11	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562067	49,15
2019-07-11	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562056	492,72
2019-07-11	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19326000448509	64,87
2019-07-12	NATURGY IBERIA, S.A.	FE19321303562093	433,24

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu ditu** ltxitako ekitaldiko fakturak.

8. 2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA. EGONKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA UDALBATZARRARI.

Jarduneko kontuhartzaileak 2019ko aurrekontuaren likidazioaren egonkortasunari buruzko txostenaren azalpenak eman ditu:

Honela dio:

Administrazio izaera duten entitateen 2019ko aurrekontuko likidazioaren espedienteak betetzen ditu aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2019rako ezarritako helburuak, baina ez du betetzen gastuaren araua.

Gastuaren araua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, gutxienez 2020-2022 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko ekitaldian eta hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkari, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren apartatua aurreikusitako komunikazioa egin behar zaio Udalbatzari. Bertan, zirkunstantzia hori adierazi behar da, kontuhartzaitzak entitatearen finantza-iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

Beraz, ondorengo txostena egiten dut Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Gastuaren araua

2019. urtean gastuaren muga eta gastu konputagarria honako hauek izan dira:

Gastuaren muga	23.646.193,01
Gastu konputagarria	24.087.035,59
Gastu muga - Gastu konputagarria	-440.842,58
DGak finantzatutako gastu konputagarria:	440.842,58



Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

2018ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	27.822.818,73
2018ko interesak	-735,37
SEC doiketak	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik	-114.435,83
-sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia 2018an	-4.683.116,85
2018ko gastu konputagarria	23.024.530,68
2019ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	26.652.647,35
2019ko interesak	-761,93
SEC doiketak	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik	-12.419,93
-sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia 2019an	-2.552.429,90
2019ko gastu konputagarria	24.087.035,59
Hazkundearen erreferentzia (2,7%)	621.662,33
Arau aldaketen eragina:	0,00
Gastuaren muga:	23.646.193,01
Gastu muga - Gastu konputagarria	-440.842,58
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	3.455.674,79
DGak finantzatutako gastu konputagarria:	440.842,58
Gastu muga - Gastu konputagarria, plana egiteko ondorioetarako	0,00

2019an, lurreamendi egoitzaren kudeaketa Foru Aldundiari eskualdatu zitzaion apirilaren 1etik aurrera. Horrek eragina izan dezake gastu-arauaren kalkuluan; izan ere, ekitaldi oso bateko gastua (2018) hiruhilabete bateko gastuarekin (2019) alderatzen ari gara.

Hori dela eta, gastu-araua lurreamendi gabe ere kalkulatu da, eskualdatzeak kalkuluan eraginik izan ez dezan.

Hauek dira datuak:



2018ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	23.072.997,58
2018ko interesak	-735,37
SEC doiketak	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik	-114.435,83
-sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia 2018an	-1.568.280,83
2018ko gastu konputagarria	21.389.545,55
2019ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	25.176.347,53
2019ko interesak	-761,93
SEC doiketak	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik	-12.419,93
-sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia 2019an	-1.834.549,12
2019ko gastu konputagarria	23.328.616,55
Hazkundearen erreferentzia (2,7%)	577.517,73
Arau aldaketen eragina:	0,00
Gastuaren muga:	21.967.063,28
Gastu muga - Gastu konputagarria	-1.361.553,27
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	3.455.674,79
DGak finantzatutako gastu konputagarria:	1.361.553,27
Gastu muga - Gastu konputagarria, plana egiteko ondorioetarako	0,00

Bi kasuetan, ez litzateke 2019. urterako gastuaren araua beteko.

Plana ordezkatzeko baldintza betetzeari buruzko egiaztapena

Administrazio izaera duten entitateek, gastuaren muga eta gastu konputagarriaren artean duten aldea (-440.842,58 euro) Diruzaintza Gerakinaren erabiltzearen ondorio bat da, Diruzaintzak finantzatutako obligazioak 3.455.674,79 euro izan baitira.

Iurreamendiren kudeaketa eskualdatzearen efektua kentzen badugu, gastuaren muga eta gastu konputagarriaren artean duten aldea -1.361.553,27 euro da eta Diruzaintzak finantzatutako obligazioak 3.455.674,79 euro.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Iurreamendi kontutan hartu gabe, 2018ko eta 2019ko ekitaldien arteko gastu konputagarriaren aldea ondorengo hau da:



Gastuak	2018	2019	Aldea (%)
Gastu arruntak (1-4 kap.)	20.633.548,30	21.876.848,16	%6
Kapital eragiketak (6-7 kap.)	2.439.449,28	3.299.499,37	%35
	23.072.997,58	25.176.347,53	%9

Gastuaren igoera, batez ere, kapital eragiketetan izan da, eta hain zuzen ere, udalaren 6. kapituluaren inbertsioak 2018an 2.003.991,54 euro izatetik 2019an 3.229.199,20 euro izatera pasa direlako.

Gastu hauek ez dira errepikakorrek eta ez dute Udalaren finantza-iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza-iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia 3.935.285,34 euro izan da 2019ko aurrekontuaren likidazioan, kontuak bateratu ondoren.

Udalaren kasuan, aurrezki garbia sarrera arrunten % 15 da. Normalean, ratio hau, gutxienez, % 2 eta % 5 arteko tartean egotea gomendatzen da.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen 2019ko aurrekontuaren likidazioak gastuaren araua betetzen ez badu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da, bateratze-mailan, entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketa onduz ez dela konprometitu geratzen.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

9. UDAL SOZIJATEETAN ETA GAINERAKO ERAKUNDEETAN KARGU-UZTEEN ETA IZENDAPENEN BERRI EMATEA.

Idazkariak udal sozietateetan eta gainerako erakundeetan kargu-uzteen eta izendapenen berri eman du. Honako hauek dira:



TOLOSAKO
UDALA

TOLARGI SL

“TOLARGI SOZIETATEAREN BATZAR OROKOR UNIBERTSALAK, 2020KO MAIATZAREN 28an honako hau erabaki zuen:

Ezen, Sozietatearen Akta-liburutik ondorioztatzen denez, 2020ko maiatzaren 28an sozietatearen Ohiko Batzarra bildu zela izaera unibertsalarekin, eta bazkide guztiak bertaratu zirela (haien izenak eta sinadurak bileraren aktan daude jasota). Gai-zerrenda onartu ondoren, honako erabaki hau hartu zen bazkide guztien adostasunarekin:

Lehenengoa.- Tolargi, SL udal enpresako kontseilari hauen uko-egitea onartzea: Olatz Peon Ormazabal eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Bigarrena.- Estatutu Sozialetako 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Kontseiluko kide hauek izendatzea aho batez:

- Lehendakaria: Begoña Tolosa Mendia, 1962ko irailaren 2an jaioa, ezkondua, 15963441S NAN zenbakia duena, eta Tolosako Berdura plazako 3, 2.a helbidean bizi dena.
- Bokala: Xabier Balerdi Tolosa, 1965eko otsailaren 22an jaioa, ezkondua, 15979513X NAN zenbakia duena, eta helbidea lurre auzoko 13, 2-C duena.

Hirugarrena.- Adieraztea bertan dauden izendatuek onartu egiten dituztela izendatuak izan diren karguak, eta adierazten dutela betetzen dituztela estatutu sozialek kargu horietarako eskatzen dituzten betekizunak, eta, gainera, ez daudela indarrean dagoen legerian aurreikusitako ezgaitasun- eta bateraezintasun-kausetan sartuta.

Laugarrena.- Ahalmena ematea erakundeko idazkariari, Karmele Contreras Goikoetxea andreaki, eta gerenteari, Yon Otaegui Aizpuruari, bietako edozeinek eman ahal izan ditzan izendapena Merkataritza Erregistroan inskribatu bitarte behar diren agiri eta eskritura publiko guztiak.

Bosgarrena.- Bileraren akta aho batez onartzea, eta idazkariak eta batzordeburuak sinatzea.

ERRETENGIBEL S A

2020ko ekainaren 25eko Batzar Orokorreko ez-ohiko bilerarako akordioa:

1) Onartzea Jose Mari Villanueva Telleria kontseilariak karguari uko egitea.

2020ko otsailaren 19an, Jose Mari Villanueva Telleria Erretengibel SAko kontseilariak uko egitea aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan PSE-EE alderdiak aurkeztuko duen hautagaien zerrenda partu hartuko duelako.



TOLOSAKO
UDALA

Erretengibel SAren estatutuen 13. eta 16. artikuluekin bat etorrira, Batzar Orokorrari dagokio Administrazio Kontseiluko kideen izendapena egitea.

Aurrekariak ikusita, honako hau da erabakia:

Lehena.- *Onartzea Jose Mari Villanueva Telleria kontseilariaren uko egitea.*

Bigarrena.- *Erabaki hau Merkataritza-Erregistroan inskribatzea.*

2) Xabier Balerdi Tolosa Administrazio Kontseiluko kide berri izendatzea

Jose Mari Villanueva Telleria kontseilariak uko egitea aurkeztu zuen 2020ko otsailaren 19an. 2020ko ekainaren 25eko Batzar Orokorreko bileran uko egite hori onartu da.

Erretengibel SAren estatutuen 13. eta 16. artikuluekin bat etorrira, Administrazio Kontseiluak gutxienez zazpi kide izango ditu, eta Batzar Orokorrari dagokio Administrazio Kontseiluko kideen izendapena egitea.

Aurrekariak ikusita, honako hau da erabakia:

Lehena.- *Xabier Balerdi Tolosa Tolosako Udaleko zinegotzia izendatzea Erretengibel SAko Administrazio Kontseiluko kontseilari.*

Bigarrena.- *Erabaki hau Merkataritza-Erregistroan inskribatzea.*

TOLOSA LANTZEN SA

Tolosa Lantzen SAko Batzar Unibertsalak, ondoren zehazten diren hamazazpi kontseilariak osatutakoak, 2020ko apirilaren 17an, aho batez, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

Bertaratutako kontseilariak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturraspe, Andu Martinez de Rituerto Aguirre, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Eskisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apeztegia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Gaia: Onartzea Tolosa Lantzen SA sozietateko Administrazio Kontseiluko kontseilari Olatz Peon Ormazabalen eta Jose Mari Villanueva Telleriaren kargu uzteak.



TOLOSAKO
UDALA

Batzar Unibertsalak, aho batez,

ERABAKI DU:

Onartzea Administrazio Kontseiluko kide Olatz Peon Ormazabal andreak lehendakari karguari uko egitea eta Jose Maria Villanueva Telleria jaunak kontseilari karguari uko egitea, Eusko Legebiltzarrerako hautesleak direlako.

Gaia: Onartzea Xabier Balerdi Tolosa eta Joseba Koldo Ormazabal Lopez Tolosa Lantzen SA sozietateko Administrazio Kontseiluko kide berri izendatzea

Batzar Unibertsalak, aho batez,

ERABAKI DU:

Xabier Balerdi Tolosa eta Joseba Koldo Ormazabal Lopez Tolosa Lantzen SAko Administrazio Kontseiluko kide izendatzea.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

10.- DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- 2020/735, ALKATETZA DEKRETUA, UDALEKO LANAREN ANTOLAKUNTZARI BURUZKO INSTRUKZIOA ONARTZEN DUENA.

2020ko maiatzaren 27an emandako 2020/0735 dekretuak hitzez hitz honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

Zk.a: 735/2020

OLATZ PEON ORMAZABAL TOLOSAKO UDALEKO ALKATEAK, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.a) atalean xedatutakoen arabera, honako hauek

IKUSIRIK

LEHENA.- 2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat jo zuela SARS-CoV-2 birusak eragindako gaitzaren (aurrerantzean COVID 19a) epidemia, eta ordura arteko egoera kategoria horretara igo zuela. Horren ondorioz, alarma-egoeraren eta osasun-larrialdiaren adierazpen bana egin ziren, eta, haien segidan, zenbait neurri hartu dira, bai estatu-mailakoak, bai gure autonomia-erkidegoaren barrukoak, birusaren hedadura mugatzeko helburua dutenak.

Tolosako Udaleko Alkateak, martxoaren 17an ebatzitako 546/2020 Dekretuan jaso zituen hainbat neurri, hasierako egoerari aurre egiteko. Halaber, Jarraipen Batzorde bat eratu zen, non lanean



aritu ziren udal taldeetako ordezkariak, langileen ordezkariak, Zuzendaritza Taldeko kideak, komunikazioko arduraduna, udal idazkaria, eta Obra eta Zerbitzuetako eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunak. Talde horrek egunero egin ditu bilerak, osasun krisiaren jarraipena egiteko, eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko, bai Udalaren barruan, bai udalerrian. Batzorde honek bere bilkurak utzi zituen une larrienak amaitu eta gero, baina pandemiaren jarraipena ez da eten, eta beste tresna batzuen bitartez mantentzen da batzordearen lana (Bozeramaileen Batzordearen bilkurak, Langileen ordezkariekin bilerak, Udaleko Zuzendaritza Taldeko eta lan esparruetako ordezkarien arteko bilerak, etab.).

Era guztietan, egoeraren larritasunak etengabeko jarraipena eskatzen du, hartutako neurriak berraztertu eta neurri berriak ezartzeko, Udalaren jardute eremuetan.

2020ko martxoaren 26an, 567/2020 Dekretuaren bitartez, Tolosako Udaleko Alkatetzak hainbat neurri hartu zituen, Jarraipen Batzordean aztertu ondoren, helburu hauekin:

- 1. Pandemiaren hedapena mugatzen laguntzea, Udalaren egoitzetarako joan-etorriak behar-beharrezkoa den gutxienera mugatuz.*
- 2. Udalaren zerbitzuko langileen esposizioa minimizatzen saiatzea, bereziki arrisku egoeran dauden enplegatuen.*
- 3. Herritarrei udal eskumeneko funtsezko zerbitzuak bermatzea.*
- 4. Gainontzeko zerbitzuen prestazioari buruzko irizpideak argitzea.*
- 5. Egoeraren larritasunak eskatzen dituen neurriak etengabe berrikustea eta egokitzea, eta Udaleko sail guztien artean koordinazioa bermatzea.*

Dekretu horretan, besteak beste, udal zerbitzuen sailkapena egin zen (funtsezkoak, beharrezkoak eta gainontzekoak), eta haiek betetzeko lan-baldintzak xedatu ziren. Akordio horren bidez, udal zerbitzuek osasun-larrialdiaren salbuespenezko esparruan jarraitzeko baldintzak ezarri ziren, eta funtsezko zerbitzuak definitu ziren, udal bulegoetan langileak fisikoki egotea eskatzen zutenak aipatuz.

Martxoaren 16ko erabakia aplikatuz, administrazio-zerbitzuetara atxikitako ia udal langile guztiek modalitate ez-presentzialean bete izan dituzte beren eginkizunak. Ildo horretan, Udalbatzak bere langile guztiei aitortu die salbuespenezko egoera honetan erakutsitako ahalegina, eta bereziki aipatu behar dira funtsezko zerbitzuei atxikita egoteagatik aurrez aurreko erregimenean eginkizunak bete dituzten langile-taldeak. Era berean, gogorarazten da neurri horiei herritarrek eusten dietela oso krisi larrian, eta, beraz, enplegatu publikoek beren betebeharrak betetzeko erantzukizuna eskatu behar dutela.

Pandemiaren hedapen-fase akutuen gainditu ondoren, jarduera soziala eta ekonomikoa pixkanaka berreskuratzea errazteko, Estatuko Gobernuak normaltasun berri baterako trantsizio-plana definitu du, Ministro Kontseiluak 2020ko apirilaren 28ko Erabakiaren bidez onartua. Plan horren helburu nagusia eguneroko bizitza eta jarduera ekonomikoa pixkanaka berreskuratzea da, epidemiak herritarren osasunerako dakarren arriskua minimizatuz eta Osasun Sistemaren gaitasunek gainezka egitea saihestuz.

Tolosako Udaleko Zuzendaritza Batzordeak, maiatzaren hasieran, jarduera osoa modu seguruan erreuperatzeko gidalerroa onartu zuen, honako helburu eta ekintza hauetan oinarrituta:



TOLOSAKO
UDALA

HELBURUA: jarduera osoa errekuperatzea modu seguruan

- kutsatu berriak ekiditea (herritar zein langile)
- erakundearen jarduera berreskuratzea bere osotasunean

EKINTZAK:

- segurtasun neurriak betetzea
- itzulera progresiboa diseinatzea
- informazioa eguneratuta izatea, eta neurrien ezarpena egoera bakoitzera egokitzea

Normaltasun berria ezartzeko testuinguru horretan, honako xedapen hauek onartu dira:

- SND/399/2020 Agindua, maiatzaren 9koa, normaltasun espezifiko berrirako trantsiziorako Planaren 1. fasea aplikatuta alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako Estatu mailako zenbait murrizketa malgutzekoa. Agindu horrek laneko prebentzio- eta higiene-neurri batzuk ezartzen ditu, eta 3. artikuluan adierazten du ahal den guztietan telelanaren jarraitutasuna sustatuko dela lan-jarduera urrutitik egin dezaketen langileentzat.
- 537/2020 Errege-Dekretua, 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera luzatzen duena, ekainaren 7ra arte.
- SND 414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa, normaltasun espezifiko berrirako trantsiziorako Planaren 2. fasea arautzen duena.
- Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren 8/2020 Dekretua, 399/2020 Aginduek xedaturiko 1. Fasean aurreikusitako neurriak egokitzen dituena.
- Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren 9/2020 Dekretua, aurreko Dekretuan xedaturiko hainbat neurri aldatzen duena.
- Eusko Jaurlaritzako 12/2020 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan trantsizio-prozesuaren 2. fasearen arauak aplikatzen dituena.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da Udal honek hartutako erabakietan jasotako neurrien irismena egokitzea, eta, horretarako, aparteko lana antolatzekeo sistemak eta Udaleko langileak pixkanaka beren lanpostuetara itzultzekeo plangintza arautzea. Batetik, udal eskumeneko zerbitzu publikoak emango direla bermatu nahi da, eta, bestetik, enplegatu publikoen osasuna babestuko dela (bereziki, Osasun Ministerioak kaltebera gisa kalifikatutako kolektiboena), bai eta lana eta familia bateragarri egitekeo eskubidea ere. Hori guztia egitekeo, funtsezkeo printzipiotzat jotzen dira osasun-agintarien aginduak, jarraibideak eta gomendioak betetzea, horiek aplikatzean laneko arriskuen prebentzioaren eta langileen segurtasuna eta osasuna babestearen arloan ezartzen diren neurriak eta, hala badagokio, osasun-larrialdiaren bilakaera ikusita har daitezkeen erabakiak.

Alde horretatik, egokitzekeo jotzen da 2020ko martxoaren 26ko akordioaren eta Udal honek hartutako gainerakeo akordioaren aplikazio-eremuari eustea, eta berariaz adieraztea akordio horiek indarrean daudela, eta aurrez aurre egin beharkeo zerbitzuak ematekeo beharretara egokitzea. Beharrezkoa da, beraz, oreka bermatzekeo udal enplegatu publikoen segurtasunaren eta eskubideen, herritarren beharren eta Tolosakeo biztanleek udal honen prestazioak eta zerbitzuak jasotzekeo duten eskubidearen artean.



Aipatu denaren arabera, jarraibide honek bi helburu ditu: batetik, udal zerbitzuen prestazio osoa pixkanaka berreskuratzea, eta, bestetik, langileen eta herritarren segurtasuna bermatzea, gaixotasuna zabaltzea saihestuz.

Horren ondorioz, udal zerbitzuak eta jarduerak arian-arian irekitzeko protokoloa ezarri nahi da, Estatuko Gobernuak onartutako normaltasun berri baterako trantsiziorako Planaren inguruan hartutako neurrien eta Eusko Jaurlaritzak egindako egokitzapenen esparruan, bai eta parte hartzen duten eragile guztien erabakiak hartzeko eredia eta erantzukizunak definitu ere, normaltasun berrirako deskonfinatzeko prozesuak udal jardueran duen eraginari dagokionez. Ildo horretan, aipamen berezia egiten zaie laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuaren eginkizunei; herritarrei arreta emateko ezohiko neurriak hartzea aurreikusten da, irauteko asmoa duen eredu baten esparruan. Era berean, egokitzat jotzen da sailtako arduradunen erantzukizunak gogoraraztea. Azkenik, telelanari buruzko irizpideak ezartzen dira, bai eta aurrez aurreko jarduerara pixkanaka itzultzearekin duen lotura ere.

Zerbitzua emateko modalitateak ezartzen dira, eta lehentasuna ematen zaie aurrez aurrekoak ez diren modalitateei, aurrez aurreko modalitateak zein kasutan aplikatu behar diren ezartzen da, eta modalitateak esleitzeko irizpideak zehazten dira, hori guztia sail bakoitzak egindako proposamena jaso ondoren. Nolanahi ere, gogorarazten da akordioaren eremuan sartzen diren langile guztiak udal zerbitzuen beharrezanaren mende egongo direla.

Bestalde, antolamendu-izaerako zenbait neurri zerrendatzen dira, eta berariaz adierazten da negoziazioaren xede izan behar dutela beren izaeragatik hala behar dutenek, eta kontuan hartuta, akordio hau hartzeko eta herrian normaltasun berrirako trantsizio-planaren faseak aplikatzeko inguruabarrak direla-eta, erabakiak etengabe berrikusi behar direla, esparru malgu eta egokitzaille batean.

Langileen ordezkariarekin izandako negoziazioari dagokionez, bi bilera egin dira (maiatzaren 20an eta 26an), eta jarraibideen testuan hainbat proposamen txertatu dira.

Azkenik, eranskin gisa, Giza Baliabideetako Sailak bidalitako prebentzio- eta babes-neurrien zerrenda eta langileen zerrenda, xedaturiko lanaioaren arabera, jaso dira.

BIGARRENA.- Alkatetza honek eskumena duela jarraibide hauek onartzeko, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.a) artikuluan xedaturikoaren arabera, izan ere, arau horrek Alkatetzari ematen dio udal gobernua eta administrazioa zuzentzeko ahalmena.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DU



Onartzea lana antolatzeke eta Udaleko langileak aurrez aurreko jarduerara pixkanaka itzultzeke antolaketa-neurriek buruzko jarraibide edo instrukzioa eta udal eskumeneko zerbitzuak eta jarduerak jendearentzat irekitzeke protokoloa deituriko dokumentua eta bere eranskinak, honako testu honen arabera:

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- Xedea eta printzipio gidariak

Jarraibide honen xedea da behar diren antolaketa-neurriak ezartzea egungo deskonfinamendu-fasean lana antolatzeke, udal langileak jarduera presentzialera itzultzeke, eta udal zerbitzuak eta jarduerak pixkanaka irekitzeke protokoloa zehaztea, hori guztia Estatuko Gobernuak onartutako normaltasun berrirako trantsizio-planaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak egindako egokitzapenekin.

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako neurriak hartzeke erabakiak hartzeke eredia ezartzen da, hartzen diren neurrien homogeneotasuna eta koherentzia bermatzeko eta Udaleko unitate eta zerbitzuen jardun koordinatua erraztuko duten irizpide eta mekanismoak edukitzeke.

Horretarako, erabaki honen printzipio gidari hauek ezartzen dira:

- 1. Langileen eta udal zerbitzuetako erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzea. Ildo horretan, akordio honen funtsezko eta lehentasuneko printzipiotzat ezartzen da laneko arriskuen prebentzioari eta laneko segurtasunari eta osasunari buruzko araudia betetzea, bai eta osasun-agintariek eman ditzaketen aginduak, jarraibideak edo gomendioak eta haiak izan ditzaketen eguneratzeak betetzea ere.*
- 2. Udalaren eskumeneko zerbitzuak ahalik eta mailarik onenean ematen direla ziurtatzea, osasun-krisiaren eta normaltasun berrira igarotzeke prozesuaren ondoriozko inguruabarrei erreparatuta. Ildo horretan, lehentasuna emango zaie krisiak herritarrengan duen eragina minimizatzeke eta jarduera ekonomikoa suspertzeke errazteke bideratutako zerbitzuei, arreta berezia jarri egoera ahulean edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboek.*
- 3. Udal jardueraren ikuspegi koordinatua, une bakoitzean dauden baliabideak kontuan hartuta.*
- 4. Aurrez aurrekoak ez diren lan-modalitateei lehentasuna ematea (modu osoan edo mistoan), hori posible denean udal zerbitzuen errealitatea, osasun-krisiaren bilakaera eta normaltasun berrirako trantsizio-faseak kontuan hartuta.*
- 5. Lanpostu bakoitzari egokitutako zerbitzu presentzialak ematen dituzten udal langileei babes-baliabide egokiak eta nahikoak ematea, osasun-agintariek eman ditzaketen agindu, jarraibide edo gomendioen eta haien balizko eguneratzeen esparruan.*
- 6. Arrisku-egoeran dauden langileen kolektiboen babesa lehenestea, osasun-agintariek erabakitzen dutenaren arabera.*
- 7. Lana eta familia uztartzeko erraztasunak ematea, zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen duten neurrian.*



Horrek guztiak ez ditu eragotziko langileen tipologiaren, eman beharreko zerbitzu publikoen eta alarma-egoera deklaratu zenetik izandako jarduera presentzialaren mailaren arabera egon daitezkeen berezitasunak eta espezialitateak.

2.- Aplikazio-eremu subjektiboak eta objektiboak.

Akordio hau Tolosako Udaleko funtzionarioei eta lan-kontratuko langileei aplikatuko zaie.

Orain arte alarma-estatuari buruz hartutako akordioak espresuki indarrean daudela deklaritzen da instrukzio honen edo ondorengo beste akordio baten bidez aldatu edo zuzentzen ez diren alderdi guztietan. Era berean, adierazten da akordio horiek, berariaz ezeztatzen ez diren bitartean, alarma-egoeraren indarralditik harago luzatu ahal izango direla, udal jarduera behar bezala garatzea eragozten duten osasun-inguruabarrak mantentzen diren bitartean.

Udal Gizarte Zerbitzuetako langileek eta Udaltzaingoak, hala badagokio, agintaritza eskudunak onartzen dituen xedapenak bete beharko dituzte, hark ezartzen dituen baldintzetan, eta akordio hau aplikatuko zaie soilik xedapen horien aurka ez egiteagatik berariaz aplikatzekoak diren alderdietan.

II.- ERABAKIAK HARTZEKO EREDUA: ERAGILEAK ETA ERANTZUKIZUNAK

3.- Erabakiak hartzea: erantzukizunak eta zereginak.

Udal langileak jarduera presentzialera pixkanaka itzultzeko eta, hala badagokio, jendaurreko zerbitzuak eta jarduerak irekitzeko, honako zeregin eta erantzukizun hauek ezarri dira:

JARRAIBIDE ETA PREMISA OROKORRAK EZARTZEA	
ZUZENDARITZA TALDEA	<i>Udal zerbitzuen jarduera koordinatua bermatzeko jarraibideak, premisak eta baldintza orokorrak ezartzea. Zerbitzuak eta jarduerak lehenestea.</i>



ZEREGINEN BANAKETA (modu paraleloan eta koordinatuan gauzatzea)	
<i>Antolakuntzako delegatua – Antolakuntzako koordinatzailea/Giza Baliabideetako Saila</i>	<i>Arriskuen prebentzioaren ebaluazioa, lantoki, sail edo zerbitzu eta lanpostu bakoitzari dagokionez.</i> <i>Babes-neurriak ezartzea. Babes-neurriak eskuratzeko eta ezartzeko koordinazioa.</i>
<i>Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia/Obra eta Zerbitzuetako arduraduna</i>	<i>Babes-neurrien instalazioaren jarraipena egitea eta garbiketa- eta/edo desinfekzio-lanak egitea.</i>
<i>Dagokion esparruko zinegotzigo eta sail bakoitza</i>	<i>Trantsizio-planetik eratorritako neurriak normaltasun berri baterantz aplikatzearekin lotutako egoerak baloratzea eta aldagaiak formulatzea.</i>
<i>Antolakuntzako delegatua – Antolakuntzako koordinatzailea/Giza Baliabideetako Saila/Informatika Azpisaila</i>	<i>Herritarrei arreta emateko eredu berri bat definitzea, udal zerbitzu guztietan aplikatzekoa, egungo egoeraren ondoriozko egoeretara egokitua eta denboran luza daitekeena.</i>
<i>Dagokion esparruko zinegotzigo eta sail bakoitza</i>	<i>Laneko kontingentzia- eta jarraitutasun-planaren proposamena: zerbitzua emateko baldintzen eta telelanaren errendimenduaren definizioa, sailaren eremuan dauden bitartekoen eta laneko arriskuak prebenitzeko neurrien arabera, ahal den guztietan aurrez aurrekoa ez den zerbitzua emateko formulak lehenetsita.</i>
ZUZENDARITZA TALDEA	<i>Prestazio-beharren ebaluazioa</i> <i>Zerbitzua eta telelanaren maila orokorra. Irizpide orokorrak ezartzea lanera itzultzeari dagokionez, eskura dauden baliabideak aintzat hartuta.</i>



ERABAKIMENA	
ALKATETZA/TOKIKO GOBERNU BATZARRA	<i>Langileak pixkanaka laneratzeari buruzko erabakiak hartzea eta zerbitzuak eta jarduerak publikoari irekitzea. Zerbitzuak eta jarduerak lehenestea. Antolaketa-neurriak.</i>

Nolanahi ere, eta atal honetan adierazitako erabakiak hartzeko ereduari dagokionez, berariaz ezartzen da prozedurak malgua izan beharko duela eta etengabe berrikusi beharko dela agintari eskudunek unean-unean ezar ditzaketen gomendio, agindu eta jarraibideen esparruan, eta kasu bakoitzeko inguruabarrak kontuan hartuta.

Era berean, erabakiak hartzeko eredu honek ez du eragotzi behar langileen ordezkarien parte hartzea eta haiekin komunikatzea, besteak beste, Segurtasun eta Osasun Batzordearen eta Negoziazio Mahai Orokorraren bidez.

Antolakuntzako zinegotziari eskuordetzen zaio erabakiak hartzeko eredu honen inguruan sor daitezkeen gorabeherak ebazteko eskumena, eta horretarako behar diren ebazpenak eman ahal izango ditu.

4.- Udal zerbitzuak eta jarduerak jendearentzat irekitzeko protokoloa.

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak ikusita, protokolo hau ezartzen da gaur egun eta osasun-larrialdiko egoeraren arabera jendearentzat itxita dauden udal zerbitzuak eta jarduerak jendearentzat irekitzeko. Horri dagokionez, aditzera ematen da, nolanahi ere, zinegotzigo edo atal bakoitzaren informazio eta arreta zerbitzu orokorrak edo berariazkoak arautuko direla aurreko atalean erabakiak hartzeko adierazitako eredu orokorraren arabera.

1	<i>Jarduera edo zerbitzua normaltasun berri baterantz igarotzeko planaren faseen esparruan irekitzeko gaitzen edo baimentzen duen xedapena argitaratzea.</i>
---	--



2	<i>Udal gobernuak zehaztutako lehentasunen esparruan zerbitzua edo jarduera irekitzearen komenentziari eta egokitasunari buruzko gogoeta.</i>	
3	<i>Jarduera edo zerbitzua emateko udal langileek egon behar dutenean, Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak alde aurretik egin beharko du zentro, zerbitzu edo lanpostuetako arriskuen ebaluazioa, eta ebaluazio horren ondoriozko neurriak jarduera edo zerbitzua ireki aurretik ezarri beharko dira edo ezartzeko moduan egon beharko dute.</i>	<i>Neurri hauek planifikatu eta prestatu daitezke Trantsizio Planaren esparruan dagokion fasearen aktibazioa argitaratu aurretik.</i>
4	<i>Indarrean dauden xedapenen, osasun-agintaritzen jarraibide, agindu eta gomendioen eta, hala badagokio, arriskuen ebaluazioaren ondoriozko baldintzen esparruan, sail bakoitzak zerbitzua emateko baldintza zehatzak ezarri beharko ditu. Baldintza horiek eskuordetutako zinegotziak baliozkotu beharko ditu alde aurretik.</i>	
5	<i>Zerbitzua emateko baldintzak Giza Baliabideetako Sailera bidaliko dira (soilik proposamenak formalizatzeko, hala, uniformetasuna eta koherentzia ziurtatzeko).</i>	
6	<i>Irekierari edo jarduera edo zerbitzuari buruzko behin betiko erabakia, Alkatzaren dekretu bidez edo Tokiko Gobernu Batzarraren akordioaren bidez.</i>	
7	<i>Akordioa gutxienez Udaltzaingoari eta Larrialdietako Udal Zerbitzuari jakinaraztea. Jarduera edo zerbitzua emateko beharrezkoa bada udal langileak bertan egotea, Giza Baliabideetako Sailari jakinarazi beharko zaio.</i>	
8	<i>Eskumena duen zinegotziari dagokio jardueraren edo zerbitzuaren kontrola eta jarraipena egitea, eta egoki iritzitako ebazpenak eman ahal izango ditu, Antolakuntzako delegatuarekin koordinatuta.</i>	

- Nolanahi ere, zerbitzuak eta jarduerak irekitzeari dagokionez, honako hau xedatzen da:
 - Oro har, eta hori justifikatzen duten arrazoi bereziak salbu, irekierari edo jarduerari edo zerbitzu bati buruzko erabakia hartu beharko da normaltasun berri baterantz igartzeko Planaren faseei dagokienez irekiera hori gaitzen duen arau-esparruaren barruan.



- *Kasuan kasuko arauetan nahitaezko izaera berariaz ezartzen ez bada, normaltasun berri baterako trantsizio-faseen inguruko neurri bat edo batzuk aktibatzeak ez du automatikoki ekarriko jarduera edo zerbitzua irekitzea, eta, horretarako, berariazko udal akordioa beharko da.*
- *Zerbitzuak eta jarduerak publikoari irekitzeari buruzko erabakiek ez dute zerikusirik haiei atxikitako langileei aplikatu dakizkiekeen zerbitzuak emateko modalitateekin; beraz, zerbitzu presentzialak bete ahal izango dira publikoari itxitako instalazioetan, lanpostuei dagozkien zereginak egiteko.*

5.- Laneko arriskuen prebentzioa

Indarrean dauden xedapenen eta osasun-agintarien agindu, jarraibide eta gomendioen barruan, Giza Baliabideetako Sailak honako zeregin hauek bultzatzen eta koordinatzen ditu:

- *Lantoki, dependentzia edo zerbitzu eta lanpostu bakoitzaren arriskuak ebaluatzea, eta, ildo horretan, bulego bakoitzaren gehieneko okupazio-mailak adieraztea, postuen ezaugarriak eta jendearentzako sarbideak kontuan hartuta.*
- *Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan beharrezkoak diren neurri teknikoak, antolamenduzkoak edo bestelakoak formulatzea (lanaren kudeaketari eta antolamenduari, sarbideen kontrolari, eremu komunei edo lanpostuei dagokienez). Neurri horiek etengabe eguneratu daitekeen eranskin batean sartzen dira.*
- *Udal langileei eta dagozkien zerbitzuetako arduradunei informazioa eta prestakuntza ematea.*
- *Kasu bakoitzean aplikatu beharreko protokoloak onartzea.*

- Indarrean dagoen araudiaren ondoriozko beste edozein.

Era berean, sail horrek bermatuko du, Segurtasun eta Osasun Batzordeko prebentzio-ordezkarien bidez, langileen ordezkariek prebentzioaren arloan kontsulta egingo dutela eta parte hartuko dutela, unean-unean zehazten diren prebentzio- eta/edo babes-neurriak hartzeari eta horien jarraipenari dagokienez.

Langile guztiek, nolahi ere, lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuak zehazten dituen jarduera-protokoloak bete beharko dituzte. Protokolo horien berri emango zaie langile guztiei, bitarteko elektronikoen bidez.

Bestalde, langile guztiei gogorarazten zaie, gaur egun are arrazoi gehiagorekin, denek egin behar dutela beren parte prebentzioaren arloan, beren burua babesteko eta gainerakoak babesteko.

6.- Herritarrentzako informazio- eta arreta-zerbitzuak.



TOLOSAKO
UDALA

Jendaurreko arreta- eta informazio-zerbitzuetan, telefono bidezko arreta (010 zerbitzua) eta informazio telematikoa (Udalaren egoitza elektronikoaren bidez) lehenetsiko dira, bai eta sare sozialak edo aurrez aurrekoak ez diren beste zerbitzu batzuk ere (adibidez, bideodeiak).

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoari kalterik egin gabe, gogorarazten da ezen, administrazio-prozedura erkideari buruzko legeriaren esparruan, Udal honen egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango direla eskabideak eta dokumentuak, hargatik eragotzi gabe interesdunek zuzenbidean onargarria den eta egokitzat jotzen duten beste edozein bide erabili ahal izatea.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (UDATE) publikoari irekitzeari dagokionez, honako neurri tekniko eta antolaketa-neurriak ezarri dira, zerbitzu publikoen erabiltzaileen eta udal langileen osasunerako izan daitezkeen arriskuak minimizatzeke eta erabiltzaileen joan-etorriak eta itxaronaldiak saihesteko:

- *Zerbitzua aldeztatik hitzordua eskatuta emango da nahitaez, eta telefonoz edo bide telematikoz kudeatuko da.*
- *Kolektibo jakin batzuentzat gorde ahal izango dira ordutegi zehatz batzuk (adibidez, adinekoentzat).*
- *Informazio- eta arreta-zerbitzuetara bideratutako espazio eta bulegoen edukiera murriztuko da, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren jarraibideen arabera. (5 lagun, bat lanpostu bakoitzeko, eta zain dauden pertsonak eraikinaren kanpoaldean, ezarritako distantzia sozialari eutsita).*
- *Zerbitzu horiek ematen diren lekuak aldatu ahal izango dira, beharrezkoa bada.*
- *Ordutegiak luzatu edo txanda-sistemak ezarri ahal izango dira zerbitzu horietarako, beharrezkoa izanez gero, beti ere langileen ordezkariekin negoziatu eta gero.*
- *Legez posible denean, nahitaezkoa izango da izapideak bitarteko telematikoen bidez aurkeztea.*
- *Erabiltzaileek maskara eta boligrafoa eraman beharko dituzte, behar izanez gero.*
- *Langileek eta erabiltzaileek (aurrez aurreko zerbitzuetakoak eta makinakoak) eskuak garbitu beharko dituzte gel hidroalkoholikoarekin.*
- *Une oro errespetatu beharko da 2 metroko distantzia soziala.*
- *Lokalean seinaleztatutako sarrerak, irteerak eta ibilbideak errespetatu beharko dira, eta udal langileen jarraibideak bete beharko dira.*

Bestalde, Tolosako Udalak betebeharrak hauek izango ditu:

- *Adostutako segurtasun-neurriak betetzeko behar diren bitartekoak jartzea, espazioa aireztatzea barne.*
- *UDATE zerbitzuan pertsona bat jartzea, neurri horiek betetzen direla kontrolatzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, eraikinaren sarreran dauden herritarrak ohartarazteko. Segurtasun-neurriak eta ibilbideak adieraziko ditu, sartzen diren pertsonak hitzordua dutela egiaztatuko du, eta Udalaren gainerako egoitzetara sartzeko eragotziko du.*

UDATEko langileek honako hauek egin beharko dituzte:

- *Aldez aurreko hitzordua eskatzen duten herritarrei Udalak adostutako neurrien berri ematea.*



- *Segurtasun eta Osasun Batzordeak onartutako protokoloan ezarritako segurtasun- eta higiene-neurriak betetzea.*
- *Zerbitzuak jasotzen duen dokumentazioari dagokionez, beharrezko segurtasun-neurriak betetzea, jarraibide hauen arabera:*
 - *Herritarrek emandako originalak: kopia elektronikoa autentikoa egingo ditu eta originalak interesdunari itzuliko dizkio.*
 - *Posta-zerbitzuetatik (Correos) datorren dokumentazioa: leku seguru batean gordeko da, eta hurrengo egunean irekiko da.*
- *Udaleko gainerako sailekin komunikatzeko, ahal dela, bitarteko elektronikoak, telematikokoak edo telefonikoak erabiliko dira. Papera beste aukerarik ez badago erabiliko da.*

Era berean, Antolakuntzako zinegotzi delegatuak nahitaez bete beharreko jarraibideak eman ahal izango ditu udal zerbitzu guztientzat, udal bulegoetan gaur egun ematen diren informazio- eta arreta-zerbitzuak koordinatzeko eta herritarrei arreta emateko egungo egoerara egokitutako eredu batean sakontzeko, etorkizunean administrazio arin, eraginkor eta garden baten esparruan irauteko asmoarekin.

7.- Zerbitzuko arduradunak

Zinegotzi-delegatuen zuzendaritzapean, sail bakoitzeko arduradunak beren bulegoak koordinatu eta zuzentzea, ohiko moduan.

Prestazio presentzialaren edo ez-presentzialaren modalitateak alde batera utzita, sailtako buruek beren eginkizunak mantenduko dituzte eginkizunen esleipenari, zereginen banaketari eta kideen lan-jardueraren kontrolari eta jarraipenari dagokienez, edozein ez-betetze gertatuz gero dagozkion ekintzak gauzatzeko.

Saileko buruei dagokie zerbitzuak behar bezala ematea, sailaren helburu arrunten arabera. Sail bakoitzaren errendimendu-mailak nabarmen murrizten badira helburu arrunteei dagokienez, justifikatuz joko da soilik sailaren antolaketarekin zerikusirik ez duten arrazoi objektiboei erantzuten badie.

Era berean, buruek ziurtatu behar dute beren saileko kideek komunikazio arina eta koordinatua dutela erakunde gainerako kideekin, eta, bereziki, herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzuekin, kasu bakoitzean ezartzen diren zerbitzu-modalitateen arabera.

Saileko buruei dagokie beren saileko lanpostuetarako ezarritako prebentzio-neurriak betetzen direla zaintzea, eta edozein gorabehera berehala jakinarazi beharko diote laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuari.

8.- Telelanaren jarraipen-batzordea eta aurrez aurreko jarduerara itzultzea.

Lan Eremu bakoitzeko taldeak (Antolakuntza, Lurraldea, Herritarrak) egingo du telelanaren jarraipena. Zuzendaritza Taldeak koordinatuko ditu eremu guztiak eta emango ditu jarraitu beharreko irizpideak.



Zuzendaritza Taldeak honako zeregin hauek beteko ditu:

1. Aurrez aurrekoak ez diren lan-modalitateak ezartzea, eta zerbitzu-modalitate horri buruzko irizpideak, orientabideak edo bestelako kontsiderazioak ezartzea.
2. Langileen lana eta familia kontziliazioa uztartzea, akordio honen esparruan.
3. Zerbitzu edo sail bakoitzaren laneko kontingentzia- eta jarraitutasun-planen tipologia zehaztea, bai eta horien ebaluazioa ere, oro har.
4. Aurrekoen antzeko beste batzuk.

III.- ZERBITZUA EMATEKO MODALITATEAK, JARDUERA PRESENTZIALEAN PIXKANAKA SARTZEAREN ESPARRUAN.

9.- Jarduera presentzian pixkanaka sartzeari.

Enplegatu publikoen segurtasuna eta osasuna babesteko, lan-modalitateak presentzialak, ez-presentzialak eta mistoak izango dira.

Jarraibide honen ondorioetarako, aurrez aurreko modalitateetat hartzen dira, halaber, udal bulegoetan fisikoki eman gabe enplegatuak lekualdatzea eskatzen duten eginkizunak betetzea (ikuskapenak, bisitak, landa-lanak, etab.).

Langileak lan-modalitate presentzialera pixkanaka bueltatzea ezartzen da, osasun-agintariek unean-unean ematen dituzten agindu, jarraibide eta gomendioen esparruan, arriskuen prebentzioaren arloko babes-neurrien ezartzea eta une bakoitzeko inguruabarrak kontuan hartuta. Horrenbestez, aurrez aurreko jarduerara erabat sartzeko, beharrezkoa izango da, batetik, hori ezartzen duen lege-esparrua, eta, bestetik, osasun-agintaritzaren xedapenekin bat etorri emandako segurtasun-neurriak ezartzea.

Oro har, normaltasun berri baterako trantsizio-planaren esparruan, eta akordio hau hartzea eragin duten osasun publikoko inguruabarrak mantentzen diren bitartean, aurrez aurrekoak ez diren lan-modalitateak lehenetsiko dira.

Aurrez aurrekoak ez diren lan-modalitateak zerbitzua emateko aurrez aurreko modalitateekin bateratu ahal izango dira, puntualki edo aldizka, akordio honetan eta berau garatzen duten ebazpenetan ezarritakoaren arabera.

Ezarri beharreko lan-modalitatea arautzerakoan, honako faktore hauek hartu behar dira kontuan:

- Osasun publikoko faktoreak. Faktore horien arabera, langile-talde jakin batzuk ezin dira jarduera presentzian sartu osasun-arrazoiengatik.
- Lana eta familia bateragarri egiteko faktoreak; horregatik, beharrezkoa da aurrez aurreko jarduerari malgutasuna ematea.
- Zerbitzu publikoko faktoreak: zerbitzu jakin batzuek aurrez aurreko jarduera eskatzen dute, edo presentzia hori behar dute eraginkortasuna hobetzeko.
- Legezketasun-faktoreak: lege-xedapen batek ezarritakoaren arabera, nahitaez (osorik edo zati batean) aurrez aurre eman behar dituen zerbitzu jakin batzuk daude.



TOLOSAKO
UDALA

Lana behar bezala antolatzeko, honako faktore hauek hartuko dira kontuan beti:

- *Garatu beharreko funtzioen izaera.*
- *Zerbitzuari lotutako administrazio-prozeduren egoera (etendakoak edo aktiboak)*
- *Lantokian, banako bulegoetan, bulego partekatuetan edo eremu irekietan kokatuta egotea; okupatutako lanpostuen arteko 2 metroko distantzia bermatu beharko da lanean hasteko, baldin eta ezinezkoa bada prebentzio-zerbitzuak onartutako taldeko eta banakako babes-neurriak hartzea.*
- *Lantokiko irisgarritasun-maila desgaitasuna duten pertsonentzat.*
- *Urrutitik erabilgarri ez dauden aplikazio informatikoak edo bestelako tresnak erabiltzeko beharra.*

Ilido horretan, honako zerbitzu hauek funtsezkotzat jotzen dira:

- UDALTZAINGOA
- UDATE
- GIZARTE ZERBITZUAK
- ETXEBIZITZA
- KONTRATAZIOA
- MERKATARITZA, TURISMO ETA GARAPEN EKONOMIKOA
- ARTXIBOA
- IDAZKARITZA (Hauteskundeak)

Halaber, sail bakoitzaren barruan, honako zerbitzu hauek funtsezkotzat jotzen dira:

- *Jendearentzako arreta.*
- *Prozeduretan interesa duten pertsonekin kontsultak egitea.*
- *Saileko pertsonen eta sail arteko koordinazioa.*
- *Administrazio-prozeduren epeei eta terminoei berrekiteko prestatzea.*

Azkenik, kontuan hartu behar dira urrutiko lana egiteko zailtasun handiagoak edo txikiagoak eta horiek lortutako emaitzen eraginkortasunean duten eragina. Adibide gisa, ez da berdina Udalaren azpiegitura informatikoarekin etengabe konektatzea eskatzen duen jarduera, ez eta nolabaiteko autonomiarekin jardun dezakeena ere: lehenengoa ez da hain eraginkorra izango, konexioen moteltasuna dela eta, eta bigarrenak eragin txikiagoa izango du bere emaitzetan, arinago garatu ahal izango baita.

Azaldutako irizpideak kontuan hartuta, jarraibide honek, Giza Baliabideetako Sailak banatutako zirkularrarekin eta Zuzendaritza Batzordeak emandako interpretazioarekin bat etorritik, ezartzen du telelanaren modalitatearen lehentasunaren barruan, jarduera presentzial batekin batera uztartu beharko



dela, honekin batera doan eranskinean araututako baldintzetan, jarraian araututako salbuespenak alde batera utzi gabe.

Horretarako, aurrez aurreko lan-txandak ezarri ahal izango dira, beharrezkoa denean, jarraibide honetan adierazitako irizpideetan oinarrituta, eta, ahal izanez gero, astean behin txandakatzea aukeratuko da, enplegatu publikoen osasunerako arriskuak minimizatzeke.

10.- Jarduera presentzialaren salbuespenak.

Langileek ezin izango dute aurrez aurreko jarduerarik egin, egoera hauetakoren batean badaude:

- 1)** *COVID- 19ak eragindako aldi baterako ezintasun-egoera.*
- 2)** *COVID-19arekin lotutako sintomatologia izatea edo izan izana. Kasu horretan, lehen mailako arretako zerbitzuekin harremanetan jarri beharko dute, osasun-agintarien protokoloetan ezarritakoaren arabera.*
- 3)** *Gaixotasun hori duten pertonekin kontaktu estuan egon izana. Kontakutu estuztat jotzen da zaintzak eman dituen edo gaixorik dagoen pertsona batengandik gutxienez 15 minutuz, 2 metro baino gutxiagora egon den enplegatu publikoaren egoera. Kasu horietan, lehen mailako arretako zerbitzuekin harremanetan jarri beharko du, eta dagokion berrogeialdia egin beharko da etxean 14 egunez.*

11.- Kolektibo kalteberak eta kontziliazioa.

Osasun Ministerioak une bakoitzean COVID-19arekiko talde kaltebera gisa definitutako kolektiboetako enplegatu publikoek, ahal dela, modalitate ez-presentzialean beteko dituzte euren funtzioak.

Halaber, beharrezkoa izango da laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuak ebaluatzea COVID-19 koronabirusaren infekzioari dagokionez bereziki sentikorrek diren langileen presentzia, langilearen sentsibilitate bereziaren izaera ezartzea eta prebentzio-, egokitzapen- eta babes-neurriei buruzko txostena egitea. Horretarako, kontuan hartuko du lana langilearen osasun-egoeraren berezko arriskua handitu gabe egitea ahalbidetzen duten baldintzak dauden edo ez dauden.

Era berean, Osasun Ministerioak lurralde bakoitzeko faseen bilakaeraren arabera ezartzen dituen irizpideen arabera bueltatuko dira lan presentzialera.

60 urtetik gorako langileek, ahal den neurrian, beren zerbitzuak telelanaren modalitatean ematen jarraituko dute, langileak berak kontraktorik erabaki ezean.

Era berean, aurrez aurrekoak ez diren modalitateetan lan egitea lehenetsi beharko zaie adingabeak edo mendeko adinekoak beren kargura dituzten enplegatu publikoei, baldin eta hezkuntza-zentroen edo adinekoen itxierak eragiten badie, agintari eskudunek zehazten duten denborarako.

12.- Zerbitzuak modalitate presentzialean ematea.



TOLOSAKO
UDALA

Zerbitzua aurrez aurre ematen hasteko, beharrezko prebentzio-neurriak hartu beharko dira, atal honetan adierazitako inguruabarren bat gertatzen den kasuetan.

1.- Udal bulegoetan fisikoki egotea ezinbestez eskatzen duten funtsezko eginkizunak betetzea eskatzen duten zerbitzuak, bai eta xedapen orokor baten ondorioz aurrez aurreko prestazioa ezartzen zaien zerbitzuek ere.

Bereziki, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako langileak sartzen dira atal honetan.

Horretarako, zeregin edo eginkizun horiek egiteko udal bulegoetan egotea eta zerbitzua modalitate ez-presentzian ematea bateragarri egin daitezkeen kasuetan, zerbitzua emateko bi modalitateak bateragarri egin ahal izango dira, jarraibide honen eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Aurrekoez bestelako zerbitzuak, udal bulegoetan (UDATE, Udaltzaingoa) laguntza edo presentzia fisikoa behar duten zereginak edo eginkizunak nahitaez presentzialki betetzea dakartenak.

3.- Udal zerbitzu presentzialak emateko ezinbesteko euskarria ematen duten zerbitzuak: gainerako sail eta zerbitzuak, jarraibide honen 9. atalean ezarritako irizpideen arabera eta harekin batera doan eranskinaren arabera.

4.- Izaeraren arabera, modalitate ez-presentzian eginkizunak bete ezin dituzten lanpostuak.

5.- Kudeaketa-eraginkortasunagatik modalitate ez-presentzian prestazio-maila egokia lortu ezin duten zerbitzuak.

6.- Era berean, noizbehinka bertaratzeko baimena ematen da, saileko arduradunaren eta Giza Baliabideetako Sailaren baimena jaso ondoren.

Nolanahi ere, zerbitzuak aurrez aurre emateko baldintza izango da osasun-agintariek ezartzen dituzten jarraibide, agindu eta gomendioak benetan betetzea, bai eta, kasu bakoitzean, zerbitzuak emateko beharrezkoak diren laneko arriskuen prebentzioaren eta segurtasun eta osasunaren arloko neurriak alde aurretik ezartzea ere, eta, bereziki, lanpostuen antolaketa fisikoari eta lanpostuen arteko distantzietan eusteari dagokienez.

Gaur egun, eskaini beharreko zerbitzuen izaerak eta/edo lanpostuen disonibilitateak horretarako aukera ematen ez badu, aurrez aurreko modalitatean zerbitzuak emateak, ziurrenik, ez du aukerarik emango sail bateko kide guztiak sail horretako bulegoetan aldi berean egoteko. Ondorioz, eta antolaketa-erabakiak hartu ondoren, lanaldi berean txanda-sistema bat ezar daitezkeenean izan ezik, aurrez aurrekoa ez den prestazioarekin konbinatu beharko da, instrukzio honen eranskinean xedatutakoaren arabera.



13.- Kontingentzia- eta jarraitutasun-planak zerbitzuak emateko.

Zinegotzi delegatuak baimena eman ondoren, kontingentzia- eta jarraitutasun-plan espezifikoak egiteko baimena eman ahal izango da, sail jakin baten jardueraren arabera.

Laneko kontingentzia- eta jarraitutasun-planak egokitu beharko dira Zuzendaritza Batzordeak formulatzen duen tipologiara eta aurrez aurreko jardueraren itzulerara.

Plan horien formulazioa ez da loteslea izango Udaleko gobernu-organismoentzat, prestazio-modalitateei dagokienez, eta nahitaez ezarri ahal izango da zerbitzuen modalitate presentziala, ez-presentziala edo mistoa, kontuan hartuta eman beharreko zerbitzuen ezaugarriak, lantoki berean lehentasunezkoztat jotzen diren beste zerbitzu edo sail batzuk egotea, edo herritarren beharrak edo antzekoak.

Antolakuntzako zinegotzi delegatuak, dagokion saileko arduradun tekniko eta politikoei entzun ondoren, eranskin horretan xedatutakoa aldatzea erabaki ahal izango du, betiere bat etorrita osasun-agintaritzak emandako xedapenekin eta beharrezko prebentzio-neurriekin.

14.- Zerbitzua emateko modalitateak esleitzeko irizpideak.

Oro har, zerbitzu, dependentzia edo lanpostu bakoitzaren ezaugarri eta eginkizunetara egokitu beharko da prestazio-modalitateen esleipena.

Zerbitzuak emateko modalitateak erantzunkidetasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioen arabera esleituko dira.

Zerbitzua emateko modalitateak esleitzerakoan, zerbitzu bakoitzeko arduradunek honako kontsiderazio hauek hartu beharko dituzte kontuan, betiere zerbitzuaren premiek ahalbidetzen badute:

1.- Agintaritza eskudunek arriskukotzat jotako kolektiboetako langileek, ahal dela, modalitate ez-presentzialean emango dituzte zerbitzuak, instrukzio honen 11. paragrafoan ezarritako baldintzetan.

2.- Era berean, lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko, ahal dela, modalitate ez-presentzialean emango dituzte zerbitzuak langileek, baldin eta haien kargura badituzte 14 urteko seme-alabak, adopzio aurreko harreran edo harrera iraunkorrean dauden haurrak, adin horretatik beherakoak edo adineko desgaituak, edo mendeko pertsonak, beti ere osasun-agintarien gomendioen, jarraibideen edo aginduen esparruan hezkuntza-zentroak edo laguntza-zentroak ixteak eragiten badie.

3.- Aurrekorik ezean, langileen beste egoera pertsonal batzuk ere kontuan hartu ahal izango dira, behar bezala egiaztatutakoak, hala nola lantokietara egin beharreko joan-etorriak, zerbitzuak modalitate ez-presentzialean emateko bitarteko egokirik dagoen ala ez, edo beste edozein, baita



TOLOSAKO
UDALA

interesdunen borondatea ere, akordio bat adostu ahal denean sailaren eremuan, zerbitzuak emateari dagokionez.

Langile bat baino gehiago egoera berean daudenean, txandakako lan-txandak ezarri ahal izango dira bulegoetara bertaratzeko, kontingentziari eta laneko jarraitutasunari buruzko planetan zehaztutako aldizkakotasunarekin.

Nolanahi ere, aurrez aurreko jarduerak ezartzeko, jarraibide honetako 9. atalean adierazitako irizpideak hartuko dira kontuan.

15.- Lanaldia, ordutegia eta ordainsariak.

Zerbitzu presentzialen, ez-presentzialen modalitateak esleitzeak edo biak konbinatzeak ez die kalterik egingo enplegatu publiko bakoitzaren lanaldiari eta ordutegiari, ez eta haien ordainsariei ere; nolanahi ere, beharrezkoa den atsedena errespetatu beharko da.

Horretarako, eta bat etorrira indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin, deskonexio digitalerako eskubidea bermatzeko neurriak ezartzea aztertuko da.

16.- Zerbitzuaren beharrei men egitea.

Erabaki honetan adierazitako neurriak ezartzeak ez du esan nahi langile guztiak behar bezala justifikatutako zerbitzu-beharrak bete behar ez dituztenik, eta, hala eskatzen zaienean, Tolosako Udalari agindutako zerbitzu publikoak emateko prest egon behar ez dutenik.

Udal zerbitzuek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko, Udalbatzak beretzat gordetzen du bere zerbitzura dauden langileez baliatzeko eta haiek mobilizatzeko aukera, hala behar duten zerbitzuak emateko, hargatik eragotzi gabe agintaritza eskudunak eman ditzakeen aginduetatik xedatzeko aukera, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean.

Horretarako, udal langile guztiak prest egon beharko dute behar diren jarraibideak jasotzeko, segurtasun publikoaren eta larrialdien arlokoek eta, hala badagokio, gizarte-zerbitzuetako langileek izan ezik, kasuan kasuko agintariek horretarako ematen dituzten xedapenak arautuko baitituzte.

Prestasun horrek berekin ekar dezake beharrezkoak diren eginkizunak betetzea (baita lanpostuaz bestelakoak ere), barne dela, hala badagokio, udal bulegoetara joatea eta lana aurrez aurre egitea, interes orokorreko arazoiek hala eskatzen dutenean.

Zehazki, aurrez aurreko modalitatean zerbitzuak emateko eskatu ahal izango da, baldin eta prestazio horretatik langilerik salbuetsi bada arrisku-egoeran egoteagatik edo kontziliazio-arrazoiak direla medio. Era berean, aldi baterako berresleipena ekar diezaiekete beste administrazio-unitate batzuei, baliabide presentzialen edo ez-presentzialen bidez dagozkien eginkizunak bete ditzaten.

Era berean, funtzio presentzialak esleitu ahal izango zaizkie, baita beste sail batekin lotutakoak ere, eta, ahal dela, herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzuetan, beren lanpostuaren eta eman



TOLOSAKO
UDALA

beharreko zerbitzuen izaeragatik modalitate ez-presentzialaren bidez beren eginkizunak normaltasunez bete ezin dituzten langileei.

Kasu horietan, babes-baliabide egokiak eman beharko dira, bete beharreko funtzioen arabera.

IV.- BESTE ANTOLAKETA-NEURRI BATZUK.

17.- Antolaketa-neurriak. Negoziazio sindikala.

Herritarren beharrianak kontuan izanda, antolamendu-neurri hauek hartu ahal izango dira akordio hau errazago bete ahal izateko, udal bulegoen erabilera eta sarbideak arrazionalizatzeko eta udal eskumeneko zerbitzuak hobeto emateko:

- 1. Lantokien eta udal bulegoen ordutegiak zabaltzea, lan-txandak ezartzea.*
- 2. Langileak nahitaez egon beharreko ordutegia malgutzea, edo lantokietan sartzeko eta irteteko mailakatzearekin lotutako neurriak ezartzea.*
- 3. Ordutegia kontrolatzeko sistemak egokitzea.*
- 4. Udal instalazio eta egoitzetan erabilera-arauak ezartzea, eta, hala badagokio, debekatzea antolaketaz kanpoko pertsonak lantokietako zonetara sartzea.*
- 5. Jardueraren jarraipen-planak ezartzea, langileen lan-bajak areagotzen badira edo lantokian transmisio-arriskua areagotzen bada.*
- 6. Oporraldi osoa edo partziala hartzeko txandei buruzko neurriak hartzea, sailaren jardueraren eta/edo prestazio-modalitateen arabera.*
- 7. Baimen edo lizentzia jakin batzuk hartzeko baldintzak.*
- 8. Aurrekoen antzeko beste edozein.*

Hartu beharreko neurrien izaerak hala eskatzen duenean, neurri horiek udal langileen ordezkariekin negoziatu beharko dira, onartu aurretik.

18.- Paperaren erabilera udal bulegoetan.

Oro har, dokumentuak paperean inprimatzea ezinbestekoa den gutxienez mugatuko da, Antolakuntzako zinegotziak horri buruz eman ditzakeen jarraibideen arabera.

Ildo horretan, erabakiak, aktak, ziurtagiriak eta gainerako dokumentuak elektronikoki sinatuko dira. Sinadura elektronikoak indarreko legerian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

19.- Lan-bilerak eta kide anitzeko organoen bilerak.

Oro har, eta bertaratutakoek kokapen fisiko gorabehera, lan-bilerak audiokonferentzia edo bideokonferentzia bidez egingo dira, eta, ahal den neurrian, ez da aurrez aurreko bilerarik egingo.



TOLOSAKO
UDALA

Era berean, kide anitzeko organo hauen kasuan: tokiko gobernu-batzarrak, kontratazio-mahaiak, hautaketa-organismoak, balorazio-batzordeak, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera bilerak dituzten organoek bilerak egin ahal izango dituzte kide guztiek edo batzuek urrutitik parte hartzen dutela, lege horren 17. artikulua arabera, eta lehentasuna du bilerak horrela egiteak.

20.- Prestakuntza eta lan-bidaia.

Egungo osasun-alertaren inguruabarrek jarraitzen duten bitartean, lehentasuna emango zaio kasuan kasuko udal zerbitzuek emandako prestakuntzak online egiteari, eta modalitate hori erabiliko da beste erakunde batzuek antolatutako prestakuntza-ekintzetan ere. Prestakuntza-ekintza presentzialetara joatea justifikatutako kasuetara mugatuko da.

Justifikatutako kasuetan izan ezik, eta egungo osasun-alertaren inguruabarrek irautzen duten bitartean, eten egingo dira udalerritik kanpo lan-bidaia egiteko zerbitzu-eginkizunetarako baimenak.

21.- Hautaketa-prozesuak.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta haren luzapenek deklaraturako epe administratiboaren etenaldia amaitzen den unetik aurrera, hautaketa-prozesuen deialdiak modu arruntan izapidetu ahal izango dira.

Ezinbestekoa den denboran atzeratuko da lehia masiboko hautaketa-proba presentzialak egitea, osasun-agintariek ezarritako gomendioen arabera, betiere prozesu jarraitutasuna bermatuta.

Salbuetsita daude COVID-19ari eusteko hartutako neurriekin lotutako hautaketa-prozesuak, bitarteko telematikoen bidez egin daitezkeenak, lehiaketa-fasean daudenak, edo hautaketa-sistema lehiaketa dutenak, edo, oro har, hautagaiek egiaztatutako merezimenduak soilik baloratzen dituen antzeko beste edozein prozesu.

Era berean, behar diren bitarteko telematikoak artikulatzen saiatuko da, hautagaiaren banakako irakurketa presentzialaren fasean dauden ariketak egiteko.

Azkenik, hautaketa-organismoek urrutiko bilerak egin ditzakete, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 17. artikulua arabera.

V.- AZKEN XEDAPENAK.

22.- Interpretazioa eta garapena.

Antolakuntzako zinegotzi delegatuari eskuordetzen zaio jarraibide honen ondoriozko gorabeherak ebaztea, bai eta honen garapena ere, eta egokitzat jotzen dituen aginduak eman ahal izango ditu.



TOLOSAKO
UDALA

Bereziki, eskuordetzen da laneko kontingentzia- eta jarraitutasun-planei, zerbitzuak emateko modalitateei, lantokiak irekitzeari eta, oro har, akordio hau betetzeko behar diren erabaki guztiei buruzko gorabeherak ebaztea.

23.- Osoko bilkurari kontu ematea.

Udaleko talde politikoetako bozeramaileei jakinarazteaz gain, jarraibide honen berri emango zaio Osoko Bilkurari, egingo den hurrengo bilkuran.

24.- Langileen ordezkari berri ematea.

Halaber, Instrukzio honen behin betiko testua jakinaraziko zaie langileen ordezkari.

25.- Langileei berri ematea.

Jarraibide honen berri emango zaio Giza Baliabideetako Sailari, langile guztiei posta elektronikoz jakinaraz diezaien, eta udal sail guztiei ere bai, burutzek horren berri izan dezaten.

26.- Argitaratzea.

Akordio honen iragarkia Udaletxeko web orrian argitaratuko da.

27.- Indarrean jartzea eta eguneratzea.

Akordio honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Ministro Kontseiluak 2020ko apirilaren 28an onartutako Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planean eta hura garatzen duten xedapenetan adierazitako faseen esparruan izango ditu ondorioak.

Langileak aurrez aurreko jardueran sartu ahal izango dira agintari eskudunek Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren II. fasea Tolosan hasteko zehazten duten egunetik aurrera, kasuan kasuko kontingentzia-planen esparruan eta lan-arriskuen prebentziorako neurrien ezarpen eraginkorren arabera.

Edonola ere, eutsi egingo zaie 2020ko martxoaren 26ko akordioaren esparruan egiten ziren aurrez aurreko prestazioen modalitateei, bai eta langileak pixkanaka jarduera presentzialean sartzeko beharrezkoak ziren laguntza teknikoko edo egokitzapeneko modalitateei ere. Era berean, langileak sartu ahal izango dira jardueran presentzialean, baldin eta, dagokion zinegotzi delegatuaren eta saileko buruaren iritziz, eginkizun urgenteak eta/edo atzeraezinak bete behar badira.



TOLOSAKO
UDALA

Herritarrentzako informazio- eta arreta-zerbitzuak 2020ko maiatzaren 25etik aurrera irekiko dira, jarraibide honek araututako baldintzetan.

Akordio hau berrikusi egingo da osasun-agintariek zehazten dituzten xedapen, agindu, gomendio, jarraibide edo protokoloen arabera, eta, oro har, agintari eskudunek normaltasun berri baterako trantsizio-prozesuaren esparruan eman ditzaketen xedapenen arabera. Hala badagokio, akordio hau automatikoki eguneratuta dagoela ulertuko da.

Era berean, hala badagokio, akordio honek bere ondorioak zabaldu ahal izango ditu behin normaltasun berriko fasera iritsitakoan, kasuan kasuko inguruabarren arabera eta bat etorrita osasun-agintariek zehazten dituzten xedapen, agindu, gomendio, jarraibide edo protokoloekin.

28.- Eranskinak.

Akordio honen 1. eranskin gisa jaso da lantokietako, udal zerbitzuetako eta lanpostuetako prebentzio-neurrien zerrenda, Osasun eta Segurtasun Batzordeak onartutakoa.

Eranskin hori, hala badagokio, agintari eskudunen jarraibide, agindu eta gomendioen arabera eguneratuko da, unean uneko inguruabarrak kontuan hartuta.

2. eranskin gisa sartu da Udaleko langileen zerrenda, bakoitzak egingo duen lan-modalitatea jasotzen duena.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Alkateak agindua eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2020ko maiatzaren 27an.

ALKATEAK

**Nire aurrean
IDAZKARIAK**

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

- 2020/766 ALKATETZA DEKRETUA.

Hitzez hitz honela dio:

ALKATETZAREN DEKRETUA

Zk.: 2020 / 0766

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkateak, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 117. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera,



IKUSIRIK

GAIA: COVID-19 GAITZAK SORTUTAKO EGOERAGATIK ETA OSASUN MINISTERIOAK EMANDAKO GARBIKETA PROTOKOLOEN ONDORIOZ KALE GARBIKETA KONTRATUAN IZANDAKO GAINKOSTUAK DIRELA-ETA, UTE TOLOSAKO GARBIKETA (U-75110080) ENPRESAK EGINDAKO ORDAINKETA ESKAERA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako kale garbiketa
Unitate sustatzailea:	Obrak eta Zerbitzuak Azpisaila

II.- AURREKARIAK

Lehena.- 2014ko apirilaren 30az geroztik, Serbitzu eta FCC enpresek eraturako UTE TOLOSAKO GARBIKETA (U-75110080) enpresak Tolosako kaleen garbiketa kontratua exekutatu du. Horren iraupena lau urtekoa zen, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Horiek horrela, 2020ko apirilaren 20an bukatu zen kontratu hori eta martxan dago lizitazio berria, baina aurrerago esango den bezala, COVID19 gaitzak ekarritako arazoaren ondorioz, ezin izan da izapidetzearekin modu normalean jarraitu.

Bigarrena.- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, eten egin ziren terminoak eta sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epeak, eta aipatutako Errege Dekretuak edo, hala bazegokion, Errege-Dekretu horren luzapenak indarra galtzen duen unean hasiko da berriz epeen zenbaketa. Terminoak eta epeak etetea Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean definitutako sektore publiko osoari aplikatuko zaio, eta horien artean dago toki-administrazioa.

